

# Arrasate

P R E S S

2000.eko  
urriaren 6a  
511. zenb.

Arrasate  
Irratia gala  
jantziekin



IKUSPEGIA: IKER EZPELETA • ORAIN ETA HEMEN: RONEO

KIROLAK: ARRASATE ALMEN ESKUBALOI TALDEA • KULTURA: ARRASATE LEHIAKETAK

# ITURRIOTZ

A R R A S A T E

## *Etxebizitza-multzoa*

*Azken  
etxebizitzak eta  
lokalak!!*



Eragilea:

**ZERRAJERA  
ETXEBIZITZAK, S.L**

Informazioa eta salmenta:

Iturriotz kalea, 35  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 19 67 • 943 77 19 68

# Eskerrak Maritxuri

**D**enok ezagutzen dugu Arrasaten, eta Arrasateko inguruetan Arrasatearrok sortuta, etxebizitzarekin dagoen arazoa. Hori dela eta, AED-k pasa den astean antolatutako mahai ingurura joatea otu zitzaidan, jakin-minak jota.

Etxebizitzaren arazoa larri zegoela jakin banekien, baina udaletxean entzundakoak eta gero, larri baino beltz ikusten dut gaia. Hizlariak hiru izan ziren; alkatea, Pagaldai Anboto inbiliarikoa eta Jabi, Denontzat plataformakoa.

Lehenengo inpresio orokorra jada komentatu dut, beltza benetan, baina badira beste aspektu batzuk gutxienez kuriosio iruditu zitzaizkidanak. Alde batetik, ia arazo guztiaren erantzule alkatea edo udaletxearen jarrera egiten zuten. Bai hizlariak,



Iker Ezpeleta

bai ikusleen artean hitz egitera ausartu zirenek ere eta normala iruditzen zait, udaletxeak erantzukizun bat duen heinean, alkateak berak onartzen zuen moduan. Baina, lanerako gogoz ere agertu zen, baita proposamen eske ere.

Benetan harritu nindue-na denok, bai hizlariak bai ikusleek, Pagaldairekin (Anboto inbiliarikoa)

izan genuen jarrera izan zen. Objektibo izanez gero, eta udaletxean entzundakoari jarraituz, bazirudien herriaren alde eta inongo interesik gabe jokatzeko dutela inbiliariek, edo bai Pagaldaiak behintzat.

Beraien zeregina, Udaletxe eta burokrazia guztien gaintetik, etxeak egin eta guretzat prest eta ahalik eta merkeen uztea ei da. Merkatuak bakarrik ipintzen ditu

salneurriak eta etxeak garesti daude, edo hobeto esatearren, ez daude, udaletxeak ez dituelako lurra lortzen eta ez duelako ezertxo ere planifikatu, eskulana zein materialak garesti daudelako, ikasle ugari direlako Arrasaten, gero eta metro karratu gehiago behar ditugulako bizitzeko, espekulatuak gutxi batzuk ere badirelako (beraiek ez, noski), eta abar.

Baina, hori bai, inbiliariek ez dira egoera honekin aberasten, ez dira gremio itxi bat zeinean salneurriak adosten dituzten, eta abar.

Arazoa benetan latza eta korapilatsua denik ezin ukatu, ni neu ez naiz etxe baten jabe ikusten ezta imajinatzen ere, inbiliariek ez dute denaren errua, baina ez direla herriarentzako lan egiten ari diren koitadu batzuk ere esan beharra dago.

Baina, beno, gaur Maritxu Kajoi denez, utz ditzagun aldrebeskeria hauek guztiak hurrengo baterako eta egun batez baldin bada ere, ondo pasau eta gutxi gastau, baina batez ere ez izan formalak!

## Etxebizitzaren arazoa larri zegoela jakin banekien, baina larri baino beltz ikusten dut gaia

*“Zinemaldira atzerriko prentsa gehiago erakarri behar da, batez ere Estatu Batuetakoa”.*

Mikel Etxagibel

# 160

**musikazale elkartu zen joan den ostiralean Amaia antzokian.**

Gayarre musika lehiaketako bost finalistek emanaldia entzuterako joan ziren bertara. Baina, datu bat: 160 horietatik laurdenak gonbidapenarekin joan ziren; %25 beraz. 828 eserleku ditu Amaiak. Beraz, ezin esan bete egin zenik..

### A U R K I B I D E A

- Ikuspegia . . . . . 3
- Eskerrak Maritxuri
- Irakurlea idazle . . . . . 4
- Inkesta . . . . . 5
- Euren ikuspuntutik . . . . . 6
- “Una, grande y libre”
- Begi Kolpez . . . . . 7
- Asteko hitzorduak . . . . . 8/9
- Astearren erreposoa . . . . . 10
- Orain eta hemen . . . . . 13/14
- Asteko gaia . . . . . 16/18
- Arrasate Irratia, aurpegia ematen
- Txutxumutxuak . . . . . 21/22
- Kirolak jokoan . . . . . 25/26
- Kulturaren txokoa . . . . . 28/32
- Berezia . . . . . 33/44
- Maritxuren semeak
- Ikusi eta entzun . . . . . 46/47
- Azoka plaza . . . . . 48/49
- Foto zaharra . . . . . 50

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Oñalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemailea:** Lorea Aginiano **Kolaboratzaileak:** Mikel Itzar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazterle Soila. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta inbentzio erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trutxuelo.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igoalatorioa 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) 943 79 39 00  
(emakumeak) 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak 112  
Gurutze Gornia 943 76 55 76  
DYA 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11  
Arrasate  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11  
Aretxabaleta 943 79 74 58  
Aramaio 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11  
Bergara 943 77 91 06  
Arrasate 943 79 14 39  
Aretxabaleta 943 79 10 52  
Eskoriatza 943 71 44 07

### Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62  
Gasa 900 40 05 23  
943 79 78 44  
943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak 943 79 12 22  
PESA 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

### Irratia

Arrasate Irratia 943 71 17 31

## 2000 ARRAZOI MARTXAN JARTZEKO: EMAKUMEEN MUNDU MARTXA 2000.

Quebec-etik mundura... Euskal Herrira. 1995ean Quebec-eko emakumeen mugimenduak martxa bat burutu zuen emakumeen pobrezia-aren aurka "ogia eta arrosa" leloarekin. Ondoren, Beijing-en burutu zen Emakumen 4. munduko Konferentzian, 2000. urtean mundu osoko emakumeak mobilizatzeko proposamena luzatu zuten.

Martxaren helburua: emakumeok mundu osoan pairatzen ditugun pobrezia eta indarkeriaren aurkako aldarrikapena eta kopromisioa hedatzea.

Martxaren bidez lortu nahi duguna honako hau da:

- Elkartasun mugimendu zabala bultzatzea munduko emakume guztien tinkotasu-

na adierazpen izan dadin.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea.

- Munduko emakumeen aurkako biolentzia eta pobrezia-ri loturiko errebindikazio eta alternatibak plazaratzea.

- Gizarte ezberdinetan emakumeen pobrezia eta indarkeriaren aurka sentsibilitatea hedatzea, gobernu eta erabakitze ahalmena duten erakundeak beharrezko aldaketak gauzatzera bultzatzea.

- Emakumeok mundua aldatzeko dugun gaitasuna azpimarratzea.

Aldaketarako irtenbideetako artean kalitatezko enplegua eskuratzea ezinbez-tekoa dugu emakumeok pairatzen dugun egoeratik irteteko, alegia, bizitza duina izateko: hau da, ekonomikoki independentea eta ez menpekoa, lan baldintza baztertzailerik gabe, etxeko lana eta ardurak bizikideen artean konpartiturik eta ahal diren guztiak gizarte zerbitzuen bidez bideratuta, inolako sexu indarkeriarik gabe. Eta horretan inplikaturik gaude danok: sindikatuak, enpresariak, gizarte eragileak, administrazioa, elkarteak...

Arrasateko Emakumeen Kontseiluak bat egiten du 2000ko Emakumeen Mundu Martxarekin eta Euskal Herrian egingo diren mobilizazio eta errebindikazio guz-

teiei atxikimena adierazten diegu. Urriaren 7an, larunbata, Donostian izango da martxa, ekintza programa zabalarekin; baserritar eta artisauen azoka Boulevard-en, zinema saioak, hitzaldiak... eta arratsaldez agerraldia egingo dugu Martxarekin bat egiten dugunok.

Horrela, bada, urriaren 7an Donostian elkar ikusiko dugularakoan.

Arrasateko Emakumeen Kontseilua

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Ostirala, 6

- Irizar, Erguin

### Larunbata, 7

- Amezua, Santa Marina

### Igandea, 8

- Zabala, Zarugalde

### Astelehena, 9

- Ruiz, Maalako Errabala

### Asteartea, 10

- Morales, San Andres

### Asteazkena, 11

- Azkoaga, Ferrerías

### Osteguna, 12

- Azkoaga, Iturriotz

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

# Zenbat denbora behar izaten duzu Maritxu Kajoirako prestatzeko?

Arrasatearrak dotore baino dotoreago janzten dira Maritxu egunean.



**Avelina Larraz**  
(45 urte)  
Langilea

Ez naiz irteten; beraz, ez dut prestatzeko aparteko lanik hartzen egun horretan.



**Bego Falces**  
(37 urte)  
Langilea

Ez naiz Arrasaten bizi, eta ez dut etortzeko ohiturarik.



**Roberto Lanz**  
(31 urte)  
Langilea

Pare bat ordu edo.



**Maria Isabel Merino**  
(47 urte)  
Etxekoandrea

Ez naiz modu berezian janzten Maritxu Kajoi egunean.



**Ignacio Bragado**  
(27 urte)  
Langilea

Jantzi, makilatu eta guzti... bi ordu gutxienez bai.



**Pello Sologaitoa**  
(27 urte)  
Langilea

Aitonaren arropa zaharrak ipini, ilean zer edo zer bota, eta hamar minututan, listo.



**Elen Kortajarena**  
(19 urte)  
Ikaslea

Iaz etorri nintzen lehenengo aldiz, Zarauztik, eta bereziki jantzi nintzen, baina aurtan ez dut ezer apartekorik egingo; nagikeria ematen dit.



**Jose Antonio Bedia**  
(52 urte)  
Langilea


Ordu erdi inguru.



**TXIRRITA**  
Taberna

Garagardo ona  
Giro hobea

Gesalibar auzoa  
Tel.: 943 79 10 35



**Edertu**  
Ile apaindegia • Solariuma

*Eskaintza berezia solariumean*

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28  
**ARRASATE**

USTEAK USTE

Maritxuk egin deixela!

**A**skok nahiko agenuke bai, Maritxuk miraria egitea. Arazorik gabeko gizartea izaten esnatzea, Maritxuren mirariari esker. Ez da, baina, horren erraza hori; bestela, Maritxu Kajoiko jai batzordekoek asmatu izango lukete hori aspaldi.

Aurten ere mirariren bat egingo du ardozaleen Maritxuk. Eta plazan txalo ugari entzun ahal izango dira, suziriak pizten direnean eta aho zabalik zer eskaintzen digun ikustean.

Gero gerokoak... poteoa, afarria eta poteoa... eta bixamona. Eta berriz ere, "miraria egin izango balu" esan behar. Horrelakoa da gure patua. Geuk egin beharko dugu, gure gogo eta nahiekin hainbeste kostatzen ari zaiguna.

Hala ere, Maritxuren alde edan edango dugu eta gora Maritxu ere oihukatu, oihukatu ko dugu.

Eskapularioa jantzi eta Frai Rufino gogoratuko dugu eta, bide batez, urteak betetzen dituzten guztien berri ere izango dugu!

Mirarietan sinisten duenak horren zain egoteko astia izango du. Besteok lanean segituko dugu.

Marijo Deogracias



Una, grande y libre

\* Maria Luisa Garcia

**G**izarte baten sentsibilitateaz hitz egiten duen zezinuetako bat babes gutxien duten taldeei (emakumeak, haurrak, zaharrak, gutxitu etnikoak...) eskaintzen zaien harreta eta tratua da. Ikuspuntu horretatik, harrigarria da Estatuko gobernuak terrorismo delituertarako Adin Txikikoen Lege Penalean egin nahi duen erreforma.

Eskubide penala, Estatuaren zigor neurri bezala, zuzenbide estatuan ezartzen joan den heinean, errudunen eskubide eta bermeen gainean ardura eta salaketa geroz eta gehiago eragiten joan da, batez ere adin txikikoen kasuan. Horregatik da hain susmagarria erreforma hori; gaur egun "euskalduna" den ororen aurka egiten ari diren "sorgin-ehiza"tik ulertzen den hori.

Lehenik eta behin, Auzitegi Gorenaren eskuduntza indartzen du, "terrorismo delituak" epaitzeko Adin Txikikoen Epaitegi Zentrala sortuz, honela Konsultazioak jasotzen duen Epai-

le naturalaren eskubidearen aurka joz; Auzitegi Gorena tristeki hain ezaguna izan zen Ordenu Publikoaren Tribunalaren oroitzapen bat baino ez da.

Bigarrenik, testu legalean jasotzen da jadanik gainditutako Egileari Zuzendutako Zigor Zuzenbidea, pertsonak zigortzen zituena eta ez egindakoa, Alfer eta Gaizkileei zuzendutako Legeak egiten zuen bezala. Terrorismo delituengatik errudun izateko jadanik ez da eskatzen talde edo banda bateko kide izatea, gaur egun gertatzen den bezala. Inor gutxik imajina dezake 14 urteko mutiko bat Auzitegi Gorenera era-

“ Inor gutxik imajina dezake 14 urteko mutiko bat Auzitegi Gorenera eramango dutela Cuencan edo Badajozen paper edukiontzi bat erretzeagatik ”

mango dutela Cuencan edo Badajozen paper edukiontzi bat apurtu edo erretzeagatik.

Hirugarrenik, delitu horien adin txikiko neska eta mutiko "egileentzat" 10 urteko itxialdia aurreikusten da, larritasun honetako delituentzako zigorrik handiena, hilketa eta bortxaketa tarteko, bost urtekoa denean. Horrek dakarrena da adin txikikoak zigorra bete orduko 24 urte edo gehiago izango dituela, eta, jakina, helduen espetxetan 18 urte betetzen dituenetik. Aurrekoak zigorra eredu izatea agerian uzten du, EEBBetan heriotza zigorraren "ontasuna" justifikatzen den kriterio berbera delako. Neurri luze hau justifikatzeko modu bakarra gure adin txikikoak "burujatea" jasaten dutela pentsatzea da, eta sekta batek harrapatuta gazteekin bezala, desprogramatu egin behar ditugula; eta, noski, zigorra etxetik gertuen dagoen tokian beteko duten garantia barik, presoekin egiten den dispersioari eutsiz.

Terrorismoaren aurkako borrokan, GAlen agerpena justifikatu zen. Orain zuzenbide estatuk eskaintzen dituen mekanismoetatik ezartzen da, askoz ere kezkarriagoa izanik. Bientzia ekingarria den bat dagoen bakoitzean, "España, una, grande y libre" horren kampaia ezartzen eta indartzen ari da, herri batekiko Estatuak duen gortasuna justifikatuz.

\*Abokatua

**P** Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erlebedun hizkiak

**ML**

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea (Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

**hildakoak**

- Angeles Eguren Agirrezabal, irailaren 26an. 81 urte zituela.
- Isabel Arana Trojaola, irailaren 27an. 59 urte zituela.
- Begoña azkarraga Mozo, irailaren 30an. 80 urte zituela.
- Domingo Madinabeitia Anduaga, urriaren 2an. 68 urte zituela.
- Angel Garcia Garcia, urriaren 3an. 76 urte zituela.

**jaiotzak**

- Gorka Nafarrate Bueno, irailaren 23an.
- Julen Domingez Alcozar, irailaren 25ean.
- Ane Gorosabel Espinosa, irailaren 27an.
- Enara Edurne Seiler Leibar, irailaren 25ean.

**ezkontzak**

- Jesus Irasuegi Urain eta Alazne Goikoetxea Larrinaga, irailaren 29an.
- Juan Antonio Carrero Alonso eta Encarnacion Garcia Caballero, irailaren 30ean.

**mezak**

**San Joan parrokia**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

09:00 (gaztelaniaz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz)  
12:30 (elebiduna)

**San Frantzisko eliza**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

09:00 (euskaraz)  
10:00 (gaztelaniaz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz)  
12:30 (gaztelaniaz)  
19:00 (gaztelaniaz)

**Uribarri parrokia**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

11:30 (euskaraz)  
12:30 (gaztelaniaz)

**San Andres eliza**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

10:00 (elebiduna)  
11:00 (euskaraz)  
12:00 (gaztelaniaz)  
13:00 (gaztelaniaz)

**Santa Teresa eliza**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

10:30 (gaztelaniaz)  
11:30 San Isidron (euskaraz)  
12:30 (gaztelaniaz)

**Santamañako eliza**

**Jaiegun bezpera eta larunbata**

19:00 (gaztelaniaz)

**Igandea**

12:00 (gaztelaniaz)

**eskelak**

**Eskelak, esker onak  
eta urteurrenak  
jartzeko tartea**

**Azken eguna:  
asteazken eguerdira arte**

**Tel.: 943 71 23 91**



LEHENENGO URTEURRENA

**Jose Ignacio  
Amasorrain Usabiaga  
"Xasio"**

Urtebeteko meza, Bergarako San Pedro elizan

**urriaren 15ean, igandea,  
eguerdiko 12:30etan ospatuko da.**

Aurrez esker ona bertarutzen zaretzen guztioi. Bere familia.



**LASAGABASTER**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

7

larunbata

■ ZINEMA

*Evasión en la Granja*, 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. Guztiontzat.

■ DANCE JAIALDIA

Jam aretoaren 4. urteurrena dela eta, dance jaialdia izango da, lau DJrekin. Sarrerak, edaria eta CDa 1.700 eta 2.000 pta artean. 00:00.



8

igandea

■ ZINEMA

*Evasión en la Granja*, 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. Guztiontzat.

■ JAM ARETOA

*Satanic Surfers, All Systems Go!* eta *Abraxas* taldeen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan. Sarrerak 1.700 pezetan, alde zurretik; 2.000 pezetan txarteldegian. 21:00.

9

astelehena

■ ZINEMA

*Evasión en la Granja*, 19:00 - 21:30, Alai zineman. Guztiontzat.

10

asteartea

■ ZINEMA

*Evasión en la Granja*, 19:00 - 21:30, Alai zineman. Guztiontzat.

11  
asteazkena

■ ZINEMA

*Romeo Debe Morir*, 19:00 - 22:00, Alai zineman. 13 urte-tik aurrerakoentzat.

LAN ESKAINTZA

ARKITEKTO TEKNIKOA

Arrasateko Udalak, arkitekto tekniko bat, aldi baterako eta egun erdiz, kontratatu nahi du:

Interesdunak Arrasateko Udaletxera etorri behar dira **urriaren 18an, goizeko 10:00etan**, euskara proba, praktikoa eta elkarrizketa egiteko.

Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri-arauak Arrasateko Pertsonal Sailean jaso daitezke



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■



# 12 osteguna

## ■ ZINEMA

*Romeo Debe Morir*, 17:00  
- 19:30 - 22:00, Alai zineman.  
13 urtetik aurrerakoentzat.

## ■ INFORMATIKA MUSIKALA

Informatika musikal  
ikastaroa antolatu du  
Arrasate Musikalek.  
Encore partituren prozesa-  
dorea erabiliko da, partitu-  
ren edizioa eta musikako  
moldaketak ikasteko.  
Argibideak: 943 79 06 83  
/ 943 77 05 40 telefonoe-  
tan, arratsaldez.

## ■ ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika hastapen  
ikastaroa antolatu du  
Buztingorri Zeramika  
Eskolak. Ainhoa Agirre  
izango da irakaslea, eta  
martitzen eta eguenero  
izango dira eskolak,  
19:00etatik-21:00etara.  
Matrikula 5.500 pezeta  
kostako da, 4.500 ikasle  
eta langabeentzat. Izen  
emate epea urriaren 20ra  
arte izango da. Argibideak:  
Gazte Bulegoan.

## ■ LEHIAKETAK ARAMAION

Bi lehiaketa izango dira  
laster Aramaion. Hilaren  
12an, Kaleko IX. Margo  
Lehiaketa izango da,  
9:00etatik-11:00etara.  
Gainera, urriaren 22an,  
Aramaio I. Argazki Rallya  
izango da. Azken honetara-  
ko izen ematea: Vital  
Kutxako 0010195172  
zenbakian, edo egunean  
bertan, Sastiñan.

## ■ ARGAZKI LEHIAKETA

Urriaren 11n amaituko  
da Udaleko Gazteria eta  
Emakume Sailek antolatu-  
tako "Gazteak eta Arraza-  
keria" argazki lehiaketan  
parte hartzeko epea.  
Udaletxeko Gazte Zerbi-  
tzuan eman behar dira  
lanok.

## ■ AHOTSA LANTZEKO IKASTAROA

Bi ikastaro jarri ditu  
abian Gipuzkoako Abesba-  
tzen Federazioak: ahots  
teknika ikastaroa eta  
haurrentzako musika koral  
mintegia. Lezon eta  
Tolosan emango dira.  
Argibide gehiago: 943 52  
19 33 / 943 52 11 45  
telefonoetan.



Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12



Udaltx  
InmobiliariA

- Etxeak, lokalak, ...  
saldu-erosi
- Tasazioak
- Fiskal Aholkularitza
- Errentamenduak
- Kontratuak

## Etxebizitza berriak salgai

- Arrasaten **Ferrerias** kalean.
- **Aretxabaleta** erdialdean.

Maalako Errebala, 27 beheka • Tel.: 943 79 59 99

astea bi hitzetan

■ **Istripua**

Pasa den ostegunean istripua izan zen Arrasateetik Bergararako bidean, Gi-627 errepidean. Bi kamioik eta turismo batek elkar jo zuten Kanpazarrerako bidegurutzet inguruan. Ezbeharraren ondorioz, 25 urteko gizonetako bat Eskualde Ospitalera eraman behar izan zuten zauri arinekin. Horrez gain, errepidea erabat moztuta gelditu zen hasieran; gero, bide bat ireki zuten. Ondorioz, auto ilara luzeak sortu ziren.

■ **Kirol txartel bateratua**

Bailarako kirol teknikariek kirol instalazioetara sartzeko txartel bateratu bat sortzea erabaki zuten pasa den

asteazkenean. 2002. urteko urtarrilean jarriko da abian. 22.000 pezeta inguru kostako da eta txartel horren bitartez posible izango da Debagoieneko edozein kirol instalaziotako bazkide izatea.

■ **Gaiberritze zentroa**

Datorren urtearen hasieran Arrasateko Gaiberritze Zentroa Eskualde Ospitalera pasatuko da. Ospitaleko sotoaren lehenengo solairuan kokatuko da eta tokia egokitzeko lanak datorren hilean hasiko dira. Gaurko kokalekuarekin alderatuz, leku bikoitza izango du eta zerbitzu hobek. Beraz, egunero zerbitzu hori erabiltzen

duten 120 lagunak poztuko dira, bai, albiste honekin.

■ **Meningitisaren txertoa**

C motako meningitisaren kontrako txertoa abian da Eskualdeko Ospitalean. Astelehenean hasi ziren ematen. Bi hilabetetik aurrerako ume guztiek jasoko dute txertoa, txandaka. Hasteko, urriaren 15era arte 2-3 hilabeteko haurren txanda izango da; 15etik aurrera, berriz, ospitalean 3 hilabetetik 4 urtera artekoek hartu ahal izango dute, eta ikastetxeetan, 5-6 urtekoek. 1994-95ean jaiotakoek, berriz, euren ikastetxeetan hartu ahal izango dute, gurasoek baimena ematen badute.



■ **EAK 14 urte**

Arrasateko Eusko Alkartasunak bere 14. urteurrena ospatu zuen asteburuan. 80 bat lagun elkartu ziren, tartean Gorka Knörr idazkari nagusia eta Rafa Larreina alderdiko bozeramailea. Goizean meza izan zuten, hildako alderdikideen omenez, eta ondoren Alkartetxean elkartu ziren herri bazkaria egiteko.

“ Nik oso garbi daukat zein den enkargua, zer eskatu zaidan eta zer kontatu behar dudun; film bat egin behar baldin badut eta film horretan protagonista emakume hau baldin bada eta honek oso harreman berezia baldin badu herri horrekin eta, gainera, herri horrek bizi baldin badu bizi duen egoera, historia hori kontatu beharko dut; momentuan hau daukagu esku artean eta hasieratik esan zidaten emakume horren historia dela kontatu beharrekoa; saiatu naiz ahalik eta ondoen historia hori kontatzen. Elkartasun historia bat ez da guria, elkartasun historia bat da gure protagonistaren historia eta hori da komeni dena argitzea. Kasu honetan gertatzen da, herri horrek oso suerte txarra izan duela eta aspaldiko partez oso egoera larrian dagoela eta askotan gauza horrek ahaztu egiten ditugu. Noizean behin, jendearen kontzientziak astintzea ez da gauza txarra, baina ez da gure helburu nagusia”.

**JON ANDUEZA**

Arrasate Irratia  
(2000.10.5)

# Lan orientabide ikastaroa

■ **HELBURUAK:**

- Proiektu profesionala zehaztea eta lana topatzeko orientabidea hartzea.
- Informazio jasotzea lan merkatuari buruz, balaibidei buruz, lan aukerei buruz...
- Flexibilitatea eta norberaren babilabideak areagotzea lana topatzerakoan.

■ **NORENTZAT:** graduatu eskolarra edo lehen mailako ikasketak dituen emakume langabeentzat.

■ **TOKIA:** IMI ko lokala, Arrasate Pasealekuan.

■ **ORDU KOPURUA:** 42 ordu talde lantegia, 26 ordu bakarreko orientabide, eta 20 ordu segimentua.

■ **ORDUTEGIA:** goizez 9:00tik 12:00tara.

■ **NOIZ:** urrian hasi eta abendua bitartean.

**INFORMAZIOA ETA IZEN**

**EMATEA:** Arrasateko Emakume Sailean, telefonoak: 943 79 09 00 edo 943 79 41 39.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sails ■

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

**UGARTE**

Industria  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412



# Udalaitz, S.L.

Musakola auzoa, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 18 80 / 943 79 21 25

## A3 zure autoa



<http://www.cim-idiomas.com>

Informa zaituz orain!

# Hizkuntzak denontzat

haur, gazte eta helduentzat

- Hizkuntza eta maila guztiak
- Ordutegi malguak
- Mediateka zure esku dohainik
- Multimedia sistemak

**MATRIKULA EPEA ZABALIK**

AHIZKE S. COOP



Avda. de Álava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 71 20 55 Fax: 943 71 21 81  
E-mail: [secretario@cim-idiomas.com](mailto:secretario@cim-idiomas.com)

Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 71 60 00 Fax: 943 71 80 51  
E-mail: [oinati@cim-idiomas.com](mailto:oinati@cim-idiomas.com)

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)  
Tel.: 945 15 01 55 Fax: 945 15 01 56  
E-mail: [gasteizbaib@cim-idiomas.com](mailto:gasteizbaib@cim-idiomas.com)

Zubieta, 26 - 20007 SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 43 31 02 Fax: 943 43 37 36  
E-mail: [donostia@baib.com](mailto:donostia@baib.com)

**bai & by**

# JEVRIAN GIRORIK ONENA EGUN DANIAN

**MUXIBAR**

Tel.: 943 79 11 25

**PIZZAK**

**ARROGOI  
TABERNA**

*Maritxu Kajo iritsi da, zatoz zuzana!*

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

**MARITXUAK  
ONDO PASATZEKO...**



Iturriotz, 12 • ARRASATE

**Aupa Maritxu!  
Aupa Arrasate!**

**OKORETEGI**

**KAFETEGIA**

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.:943 77 03 62



**Aupa arrasatearrak!  
Aupa Maritxu!**

**DISCO-BAR**



**Disco-Bar Gurelekuk  
MARITXU JAI ZORIONTSUAK  
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 29

# Ikastolak eraikin berria izango du

San Frantzisko Xabier Ikastolak eraikin berria izango du. Santa Teresa (Espino) ikastolaren gertu kokatuko da, udalaren lursail batean. Eraikinaren gastua ere udalak hartuko du beregain; guztira, 112 milioi pezetako inbertsioa egingo du.



Oktogonoak auzotarren erabilerarako izango dira.

## AKABO OKTOGONOAK

San Frantzisko Xabier ikastolak Santa Teresako oktogonoak erabili izan ditu auzo hartan irakaskuntzan aritzeko, 1981. urtetik aurrera.

Hiru urte geroago, baina, Arrasateko Planeamenduaren Egitamu Orokorraren eraginez, oktogono horiek ordenazioz kanpo geratu ziren. Horrek esan nahi zuen epe ertainera ikastolak beste non-

bait jarraitu beharko lukeela bere lana.

Santa Teresa auzoan ikastolak beste eraikin bat ere badu: Santa Teresa - Espino moduan ezagutzen dena. Baina, eraikin horrek ez ditu betetzen Hezkuntzak agindutako baldintzak.

Horren aurrean, Ikastolak proposatu dio udalari, berak oktogonoak utzi egingo dituela udalak Santa Teresa (Espino) eraikinaren birmoldaketa beregain hartzen badu.

Udalbatzarrak onartu egin zuen proposamena pasa den astean.

# Harria Santa Barbaratik behera



Pasa den egubakoitzean argazkiko harriztar hori Santa Barbaratik behera agertu zen.

Espaloitik zihoazen emakume eta ume baten buru gaitetik pasatu eta aparkatuta zegoen Citroen Saxo baten gainera erori zen; han errebotatu eta errepidean zegoen beste automobil bat jo zuen, Citroen Xantia bat.

Automobil bakoitzak gutxienez 100.000 pezetako kalteak izan ditu; zorionez ez

zen kalte pertsonalik izan.

Udaltzaingoaren ustez, harria norbaitek bota zuen, tamaina horretako harri bat ez baita berez jausten; gainera, ez da lehenengo aldia Santa Barbara inguru horretan parketik erori edo botatuko harriek autoak kaltetzen dituztela.

Orain arte, autoak baka-rrik izan dira, baina baliteke noizbait norbait kolpatzea.

Ez dira ez, jolasean ibiltzeko kontuak.

# Ehungintzarekin arazoak

ELA sindikatuak "Urdin" izeneko aldizkariaren bigarren zenbakia atera du hil honetan. Euskal Herrian ehungintzarekin dauden arazoak ditu hizpide; gure kasuan, Bergarako Algodoneraren berri ematen du, hango langileek bizi duten egoera larriarena, hain zuzen ere.

Ehungintzarekin arazoak konpondu artean, ELA sindikatuak 2 edo 3 hiletik behin gai hori jorratzen duen ale berri bat aterako du.



# Autoenplegua

Udalaren Enplegu Zerbitzuak ikastaro bat antolatuko du enpresa ekimen berriak bultzatzeko. Autoenplegua eta enpresa berriak suspertzea da asmoa; enpresa kultura zabaltea eta enpresa proiektu bat garatzeko formazioa ematea.

Autoenplegua lantzeko eta negozioren bat abian jartzeko asmoa dutenei zuzenduta dago. Proiektu bat aurrera eramateko praktikak jorratu dira 60 orduko ikastaroan. Azaroan hasiko da. Interesatuak Enplegu Zerbitzutik pasatu.

# Lan orientabidea

Udaleko Emakume Sailak ikasketak maila baxua duten emakume langabetuei zuzendutako ikastaro bat jarriko du abian. Lana lortzeko moduak landuko dira, oro har. Astean hiru egunez emango dira eskolak. 15-20 pertsonarentzako lekua dago eta izena emateko epea urriaren 6an bukatuko da. Interesatuak udaletxeko Emakume Sailean galdetu behar dute.

Ikastaroa urriaren 18an hasiko da.

# Liberatu berria

27 urteko Larraitz Trojaola gaztea izango da Arrasateko Udaleko liberatu berria. Gazteria Sailaz arduratzeaz gain, bestelako lanak ere beteko ditu urritik aurrera.



## Roneo zulotik irteten



Zulotik irteteaz gain, lantegia handitzen ere badabil Roneo.

Zorretan zegoena pagatuko du Roneok azaroan, guztira 600 milioi pezeta. Horiëtatik 300 milioi Gipuzkoako Haziendari zor dizkion eta beste 210 Gizarte Segurantzari.

Zorren ordainketa egin eta gero, bere ondasunaren gainean zituen hipotekak kenduko ditu Arrasateko enpresa horrek.

### BIDE GOGORRA

Garibai kaletik Musakolara aldatu eta gero, egoera larrian

jarri zen Roneo. Hain larria, ezen 1995. urteko Gabonetan Cerrajerak 3 pezetatan saldu baitzuen enpresako langileei. Sei hilabete geroago ia porrotean zegoen, 2.000 milioi pezetako zorrarekin. Harrezkero, berriz, aholkularitza enpresa baten laguntzarekin, poliki-poliki zulotik irteten joan dira.

Gaur egun 140 langile dabilta Roneon lanean. Betiko moduan, bulegoetarako altzariak eta ate metalikoak egiten jarraitzen dute.

## Bi preso zigortuta

Senideak taldeak asteartean egindako enkarteladan, Josu Uribetxebarria eta Unai Parot preso arrasatearren egoera salatu zuen. Josu Uribetxebarria bakartuta dagoela azaldu zuten. Dirudienez, bere ziegako hormirudi bat ez kentzearren zigortu dute bakar-tzera. Orain dela hamabost egun ere beste bost egun egin zituen egoera berean.

Unai Paroti, bestalde, ez diote ekonomatoan jakiak erosten uzten.

Bi presoak Valdemoroko kartzelan daude.


## Autobus-bonuak



Herri autobuserako bonuak eskuragai daude. Autobusetan bertan, udaltzaingoan eta Leintz Garraioak enpresak Meca parean duen egoitzan eskura daitezke. Prezioa 2.500 pezetakoa da, 33 bat bidaia-rako, autobus-bonuan bidaia batek 75 pezeta balio baitu.

Behin gastatuta, daukaguna bete egin daiteke berri-ro, 1.000 pezetatik 2.500 pezetarainoko kopuruetan.

## Garraiolariak greban



Umezaintza da lehiaketara aurkeztu den enpresa bakarra.

Sindikatuaren deialdiari jarraituz, garraiolariak kamioiak errepide bazterrean aparkatu eta grebari ekin zitoten astelehenean. Erregaiaren gehiegizko garestitzeagatik protesta egitea zen helburua. Epeleko bidegurutzean elkartu dira Debagoieneko garraiolariak, guztiak Sintragi sindikatuko kideak, autonomoak, beraz. Gau eta egun egon dira hantxe, txandak eginez. Asteazkenean nekazarien laguntza ere izan zuten eta Arrasateko kaleetara ekarri zuten protesta.

### HORNITZE FALTA

Grebaren ondorioak nabariak izan dira bailaran.

Fagor Garagartzan eta San Andreseko lantokian, garbigailu, ontzi garbigailu eta hozkailuen produkzioan, asteaz-

kenerako ezin zuten lanik egin, piezarik ez zutelako; horrela, bi mila langile inguru ez ziren beren lanpostuetara joan.

Denda eta supermerkatuei dagokienez, berriz, Eroskin eta Super BMn oraindik ez zuten produktu faltarik.

Dia eta Lidl-en, berriz, arazo gehiago izan dituzte. Bi denda hauetan agortu egin zaie esnea. Dian, gainera, barazkiak, azukrea eta beste hainbat produktu ere falta izan zaie.

Dena dela, *Arrasate Press* inprimategira eraman dugu-nean, oraindik egoera konpondu barik zegoen eta greba mugagabearekin jarraituko dutela iragarri zuten garraiolariak. Beraz, hornidura faltak nabarmen areagotuko lirakete.

## 400 milioi Gizabidearentzat

Gizabidea Fundazioak bere lehendakari berria aurkeztu zuen eguaztenean: Javier Gantxegi. Berak azaldu zuenez, datozen hiru urteotako berrikuntza nagusia Fagor Taldearen dirulaguntzen loditzea izango da: urtero 400 milioi inguru emango dizkio Fagorrek. Gainera,

kapital fondoa 1.500 milioi-tik 2.000ra handitzea espe-ro du Gizabideak.

Iazko jardueraren balantzea ere aurkeztu zuen erakundeak: 92 milioiko soberakinekin amaitu zuen urtea. Aurrekontu berrietan, 250 milioiko gastuak aurreikus-ten dira.

Super Net Kontua


Euskadiko Kutxa Net

# Eskua luzatzen dizugu bankan interneten bidez sar zaitezzen.

Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletatik eskua luzatzen dizugu erraztasun osoa izan dezazun bankan Interneten bidez sartzeko. Laguntza tekniko ere emango dizugu 902 333 353 Telefono Zerbitzuaren bidez, inoiz ez zaitezzen trabatua geratu. Eta garrantzitsuena. Super Net Kontua jartzen dizugu eskura, erabilgarritasun osoa duena inolako komisiorik gabe, zure aurrezkien askatasun osoz nabiga dezazun errentagarritasun altuan.

## Orain Super Net kontuarekin aukera berriak irekitzen zaizkizu:

- Errentagarritasun handiagoa kostu txikiagoekin.
- Azkartasun eta erosotasun handiagoa.
- Baloreen salerosketa, gordailuak, inbertsioak eta abar momentuan egiteko. Inbertsiogile handien abiadura berberaz mugitu zaitezzen.



## ezaugarri nagusiak

### Ondorengo ordainketa lehen pezetatik hasita:

0tik 199.999 pta.ra, %0,10eko UTB (%0,10eko nominala)  
200.000tik 999.999 pta.ra, %2ko UTB (%1,982ko nominala)  
1.000.000etik 2.999.999 pta.ra, %3ko UTB (%2,960ko nominala)  
3.000.000tik 4.999.999 pta.ra, %4ko UTB (%3,928ko nominala)  
5.000.000tik 10.000.000 pta.ra, %5eko UTB (%4,889ko nominala)

- Ez du helbideratzerik onartzen
- Gehienez 10.000.000 pta.ko zenbatekoa


- Erabateko erabilgarritasuna
- Mantentze-komisiorik gabe
- Interesak egunero kalkulaturak
- Interesak hileroko ordainduta
- Kontua sukurtsaletan irekita



Kontu honek pertsona fisikoak bakarrik onartzen ditu eta bezero bakoitzeko kontu bakarra ireki ahal izango da.

Informazio gehiagorako, deitu 901 333 444 telefonora edo bisita ezazu gure Interneteko orri berezia:  
[www.cajalaboral.es/supernet](http://www.cajalaboral.es/supernet)

901 333 444  
[www.cajalaboral.es](http://www.cajalaboral.es)

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin  
elkarlanean

# Arrasate Irratia, aurpegia

Arrasate Irratiak ikasturte berriari ekingo dio astelehenetik aurrera. Urriaren 9an programazioa zabalduko du gure herriko irratiak.

Albistegiak eta Igo Autobusera magazinaz gain, musika saioak, elkarrizketa tarteak, asmakizunak eta beste hainbat kontuetaz arituko dira Arrasate Irratiko kolaboratzaile finak. Adi adi irakurri gero entzungo dituzuenak, betiko puntu berean, hau da, FMko 107.7an.

## DRAXTOR ETA IN SESSION astelehenero, 21:00-22:00

Josu Rodriguez, Dani Markez eta Mikel Marmolejo arrasatear gazteenek behintzat eza-gutuko dituzte. Bi mutil hauek dira moda- modako DJak. Bi irrati saio izango dituzte Arrasate Irratian. *Draxtor* saioan, punta-puntako musika doinuez eta horren inguruko teknologiaz arituko dira eta bigarrean, *In Session* saioan, dantza egiteko musikaz gozatzeko aukera eskainiko digute. DJ lanak egingo dituzte eta eurak ibiliko dira diskoekin egin daitezkeen gauza harrigarri guztiak egiten.

Musikaz gozatzeko eta astea gogoz hasteko, horra hor aukera paregabea. Doinu berri eta modernoak, gorpuzak astintzeko eta ideiak zabaltzeko.



Josu.

Dani.

## JAKIDIPILOST asteartero, 21:00-22:00

Naiara Ramos, Maitane Triocio eta Ugutz Usandizagak irratia euren hobby-a dela diote eta hirurek *Jakidiplost* osatzen dute.

## KK2A asteazkenero, 21:00-22:00

Biteri ikasleen egoitzako kideak dira *KK2A* irrati saioko gidariak. Irratian parte hartzea, egoitza horretako beste ekin-

## HI BIZI HADI asteartero, 20:00-21:00


“Hiesaren inguruko hormirudi baten leloa izan zen gure irratsaioaren izenaren iturria”, dioskue Mancisidor ahizpek. Joana eta Karmele, 18 eta 16 urteko ahizpak dira eta eurek zuzenduko dute martitzeneko saio hau. Karmelek aspaldi ekin zion Arrasate Irratian kolaboratzeari eta orain dela bi urte Joana ahizpa dauka taldekide. Biek horoskopoa, konzertuak eta jaien egitarauak aurkeztuko dizkigute, musika



Joana.

Karmele.

entzutetsuenarekin nahastuta. Hau dena, sintonia berri eta martxoso batekin aurkeztuko digute.



Maitane.

Naiara.

Ugutz.



# ematen



Biteri Egoitzako ikasleak.

tzetako bat da eta hamar lagun arituko dira aurten ere asteazkenero egoitzako kontuen berri ematen, unibertsitateko albisteak lantzen eta, bide batez, egoitzako beste ekintza taldeen berri ematen.

KK2A irratsaioa Arrasate Irratiko saiorik beteranoenetakoa da. Koldo Susperregi aritzen da arduradun gisa eta berak dioskunez, "hasieran emisio pirata egiten zen Biterin bertan, baina Arrasate Irratia jaio zenean, herrira zabaltea erabaki zen eta ordutik Arrasate Irratian dago KK2A". Eskaintzek ere izango dute lekua saioan. "Gainera, astero hiru lagun ezberdin arituko garenez, horrek bizitasuna eta freskotasuna ematen dio saioari".

Eskoriatza, Oñati eta Arrasateko unibertsitateko fakul-

tateko ikasle hauen helburua garbia da: "ahalik eta jende gehien erakartzea irratiaren inguruan, zuzenean parte hartzeko edo entzule bezala". Zorte on!

## **OSTEGUN-ERO** **ostegunero, 20:00-21:00**

Hirugarren ikasturtea dute Ainara Jorgek eta Aitziber Arenazak Arrasate Irratian. Biek 17 urte dituzte eta musika dute gustuko; izan ere, Ainarak akordeoia eta dulzaina jotzen ditu eta Aitziberrek, berriz, akordeoia eta panderoa. Agian horregatik euren irratsaioa musikaren inguruan izango da. Baina, ez pentsa euren musika tresnekin zerikusia duten musikaz arituko direnik. Nazioarteko punta-puntako doinuak eskai-




Aitziber.

Ainara.

niko dizkigu bikote honek, sekulako martxa dute eta. Gainera, musika eskariak ere onartzen dituzte.

Lagun bati entzun omen zioten Arrasate Irratian kola-

boratzaile bila ari zirela eta bertara joatea erabaki zuten. Jadanik hiru urte pasa dira eta aurten ere musikaz beteko dizkigute etxeko bazterrak.



Ainhoa.

Deiane.

## **PLANING PREST** **ostiraleko, 20:00-21:00**

Deiane Arrieta eta Ainhoa Landak egingo digute astebururako plana. Izan ere, *Planing Prest* irratsaioak horixe eskaintzen digu, asteburuko plana eta hurrengo astean egiteko izango ditugun gauza guztien kontuak. Tarteka, gainera, hitzorduekin harreman zuzena duten protagonistak elkarrizketatuko dituzte.

Matilde filmaren soinu banda da euren zeinua, horixe baita *Planing Prest* sintonia.

Laugarren ikasturtea du saio honek; Deianek eta Ainhoak Almenen ikasten zutenean irrati praktikak egin zituzten eta irratia maite zutela ikusi zuten. Ea, bada, eurek beste gozatzeko aukera izaten dugun geuk ere!



Aritz.

Nerea.

Jon.

## **KALE DOINUAK** **ostiraleko, 21:00-22:00**

Nerea Gorosabel, Aritz Oianguren eta Jon Regañak zuzentzen dute euskal musikari buruzko irratsaio hau. Hirugarren ikasturtea dauka *Kale Doinuak*-ek eta aurten ere euskal musika aitzakia hartuta, euskal taldeen eta euren lanei buruzko

informazioa eskainiko digute. Horrez gain, bi lehiaketa izango ditu saioak: batetik, galdera orokor bati buruzkoa eta bestetik, "Euskobision" asmakizuna, hau da, erdal kantu ezagun baten euskarazko bertsioa interpretatzea.

17 urte dituzte hirukote honetako kideek eta eskolan ezagutu zuten elkar. Nereak irratia du gustuko, Jonek musika eta Aritzek, berriz, biak.

gazte honek. Iaz "Jakinguraz" beteta ezagutu genuen, baina aurten proposamen berri batekin datorkigu; baserrian arituko da *Bihurrikerietan*. Handik haurrek erraz-erraz egiteko errezetak, liburuen gomendioak, jolasak, eskulanak, ipuinak, asmakizunak eta hitzorduak eskainiko dizkigu. Baina, baserriko "Kortatik" ere hitz egingo digu, animalien berri emateko. ■

Marijo Deogracias

**BIHURRIKERIETAN**

**larunbatero, 10:00-11:00**

Maitane Muñoz irratizale amorrutua da. Aurten bere hirugarren ikasturtea egingo du Arrasate Irratian 16 urteko

**Gogoratu Arrasate Irratiko telefonoa: 943 71 17 31**



Maitane.

**MUSIKA KLASIKOA**

**larunbatero, 11:00-12:00**

Musika Klasikoak ere izango du lekurik arrasatearren irratian. Ordubetez entzun ahal izango dira doinu klasikoak astero-astero garai bat gogora ekarriz.



**BI ZORO ETA ZU**

**larunbatero, 12:00-14:00**

Bigarren urtez elkarrekin, Haika Aizpuruak eta Mikel Lizarraldeak aurkeztuko digute larunbateko magazin zoro hau. Lehenengo orduan zinema, elkarrizketak, kale inkesta eta gure gizartean eragina izan duen kantu famatua eskainiko digute. Elkarrizketen tartean beste lau lagun laguntza izango dute; izan ere, musikan, Euskal Herriko pertsonaia famatuetan, gaurkotasuneko gaietan eta bidaietan aditu bana izango dute ondo-ondoan eurekin lanean.

Bigarren orduan, munduko prentsa arrosaren txutxumtxuen errebasoa eta bitxikeriak eskainiko dizkigute. Baina, hau ez da eskaintzen diguten bakarra. Bromen tartek ere segituko du saio honetan. Inori broma bat egin edo eguna alaitu nahi izanez gero, aukera bikaina duzue *Bi zoro eta zu* irratsaioan.

# Merkataritzako Jardunaldia

**BEZEROARENTZAKO HARRERA**

- **Lekua:** Lantegi Eskolako Aretoa
- **Egunak:** urriak 9 eta 10
- **Ordutegia:** 14:15 - 16:15
- **Prezioa:** 500 pta. (IBAI-ARTEko bazkideak dohainik)

Plazak mugatuak direnez, beharrezkoa da txartela jasotzea jardunaldia hasi baino lehen, Beatriz Oinetako dendan edo Zabaleta Lurrindegian.

Jardunaldiaren ondoren eta hurrengo 10 egunetan, jardunaldi hau emango duen enpresak etorritakoei gaiari buruzko dohaineko kontsulta zerbitzua eskainiko die.

**Antolatzaileak:**   ARRASATE ERDIALDEKO MERKATAL ETZA ZERBITZUEN ELKARTEA

**Babeslea:**  

# TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerrias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarreko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Aukeratu dudan lekuan

Ez dago jendetzarik

Ez autorik

Ezta eraikinik ere...



Aurora Vest

Convertible Pant



**ARRASATE**  
**KIROLAK**

 **POLARTEC** **POWER STRETCH**



Kontzeziño, 8 • ARRASATE • Tel: 943 79 46 12

**NEVER STOP EXPLORING™**  
[www.thenorthface.com](http://www.thenorthface.com)

# GEURIAN GIRORIK ONENA EGUN DANIAN

## RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea  
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



## ESKIÑA taberna

Ondo ibili Maritxutan!  
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

## KYMETZ

Kazuelatxoak,  
ogitartekoak eta  
pintxoak

Maala, 15  
Tel.: 943 79 60 14  
ARRASATE



## OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

## IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE



## ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE


EUSKAL PRESOKA EUSKAL HERRIRA!





## IRABAZLEAK, AURREZ AURRE

Euren lanak ikusi genituen, *Arrasate Pressen*, eta orain, gure argazki eta postal lehiaketako irabazleak aurrez aurre ikusteko aukera dugu, Jokin Aiausti eta Nahikari Ganboa. Sari bezala Ugaran jatetxean afari bikaina jaso zuten. Bien bitartean, Nahikari zoriontzeko aprobetxatuko dugu, 16 urte egin zituen-eta irailaren 28an.



Eta ezusteez ari garenez, galanta jaso genuen guk orain bi astelehen, Otalora kalean grafiti berri hau ikusi genuenean. Ez dakigu nor izango zen artista, baina asteburuan majo jardun behar izan zuen pareta honela apaintzeko.

## ARTISTA EZEZAGUNAREN AZTARNAK

*Tratamendu berria!*

*Emaitza ezin hobeak eta berehalakoak!*

Sendabide naturala:

Asma  
Errinitisa  
Ekzemak

Kontsulta ordua, aldez aurretik eskatu telefonoz deituta.

Munar, 8.behea ■ Tel.: 943 79 73 54 • *Tabira Belar denda*

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78

**HIES  
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

# EZKONBERRIAK BIDAIARIK GABE




Ainhoa Altzola eta Rafa Lafuente irailaren 23an ezkondu ziren, Arantzazun, eta Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean egin zuten bazkaria. Oraindik ezin izan dute bidaiari joan, baina erreserba eginda daukate Dominikar Errepublikan. Zorionak bikote!



Gazte Txokoen urteurrena ospatzeko, jaialdi itzela antolatu zuen Txatxili-purdik. Martxa ipintzea, DJ Fleky, DJ Ekaitz, DJ Iosu eta DJ Daniren esku geratu zen. Eurek jarri zituzten dantzan Lau-Kale plazan elkartu ziren gaztetxoak.

# ZELAITXO LIZENTZIADUNA

Euskal Filologian lizentziatu berri da Arrasate Presseko zuzentzailea, Sergio Azkarate. Hori jakinda, sekulako ezustea prestatu zioten erredakzioko eskulangile trebeenek: argazkiko birrete apaina!



**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**



**ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK**  
Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA  
Telfax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

**Maritxutan dotore-dotore egoteko**

**Comercial ARPE**

Kontzeziño, 4 behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09



# Beatriz

## oinetakoak

1946-2000

*Udazken-neguko moda berria, eroso eta atsegina  
Maritxu Kajoi zoriontsua izan!*




*Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33*



ASTRA *Coupé*  
BERRIA

DISEINUA ETA PRESTAZIOAK BATEGINIK




**TALLERES OLA**

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Olabarrena auzoa z/g  
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN  
Araba erorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86



# UGARTE A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Ondo  
pasatu  
jaiak!

San Juan, 1 • (Gasolindegia-aren parean) • BERGARA • Tel./ Faxe: 943 76 54 91



## ATLETISMOA Espainian kale

 Junior mailako Espainiako Txapelketara joan ziren joan den asteburuan Jonathan Perez eta Unai Sarabia, Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko kirolariak. Pertika jauzian eta 200 m.ko lasterketan aritu behar ziren, baina ez zuten uste bezalako emaitzarik lortu. Jonathanek 4,15eko jauzia egin zuen eta bederatzigarren sailkatu zen. Euriak, haizeak eta hotzak eragina izan zutela aitortu digu Jonathanek.

Unai finalerdietara iritsi zen, baina muskulu uzkurdu- ra izan zuen eta lasterketa utzi zuen. Kontuak kontu, negua dute oraindik entrenatzeko, lortutakoa hobetzen joateko.

## FUTBOLA Lehen taldeak irabazi

 Mondrako lehen erre- gionaleko taldeak ere denboraldi honetan etxean jokatzen zuen lehenengo partida izan zuen larunbatean. Zarauzko Antonianoren aurka aritu ziren Raul Leibarenak, eta Juanek sartutako gol bati esker garaipena eskuratu zuten Atxabalpekoek. Bigarren urteko gazteek ere etxean jokatu zuten eta 5 eta 0 irabazi zieten Eibar- ko Gazteak taldekoei. Aipatu behar da infantilek ere 2 eta 0 irabazi zutela Hernaniren aurka. Erizek sartu zituen bi golak.

Aste honetan etxean parti- da hauek jokatuko dira: larun- batean bigarren urteko kade- teek Eibartarrak aurka

(16:00) eta igandean, Mon- drako neskak eta Eibartarrak (12:15), ohorezko kadeteak eta Lagun Obak (10:00) eta lehen urteko gazteak eta Ses- tao (16:30).

## SASKIBALOA Etxean kale

 Denboraldiko biga- rren jardunaldia izan zen eta etxe- an jokatu zuen lehenengo partida Kenci Arrasatek. Aurrez aurre Lander Errastiren mutilak eta Leioako Askartza. Ostiralean jokatu zuten bisitariak horre- la eskatuta eta badirudi horrek ez ziela mesede egin etxeko- ei. Partida osoan irabazten joan ziren, baina amaitzeko 5 minu- tu faltan Leioarrek partida ber-

dindu eta irabazi egin zuten.

Partidak giro hotza izan zuen eta arrasatearrek ez zuten erritmo egokirik hartu. Laur- denetako emaitzak hauek izan ziren: 25-20, 45-39, 68-64 eta 86-92.

Larunbatean jokatuko dute, 18:00etan, Profusa Loiola tal- de bilbotarraren aurka. Eta berriz ere Iturripen izango da norgehiagoka. Taldea oraindik guztiz zehaztu barik dago 23 urte azpikoen taldea osatzeko zain. Aiastui, Kintana, More- no, Errasti, Basurko, Gorosti- di, Mallabiabarrena, Lazpiur eta Gamarra arituko dira.

Bestalde, kadete mailako neskek eta junior mailako muti- lek lagunarteko partidak joka- tu zituzten Legazpiaren aurka.

Neskek 47 eta 13 irabazi zuten eta mutilek gauza bera egin zuten, 51 eta 45.

# Txapelketa ikusgarria izan zen



Gaizka Agirre bergararra Euskal Herriko txapeldun izendatu zuten Mojategin.

25Arrasate Motorzale Elkar- tea pozik egon daiteke. Joan den igandean Mojategin joka- tu zen III. Motokros Txapel- keta ikusgarria izan zen oso. Euriak lokaztu egin zuen era- bat zirkuitua eta horren kon- tura ikusgarriagoa izan ziren

motorretako pilotuen laster- ketak.

Gainera, Euskal Herriko txapeldun izendatu zuten Gaiz- ka Agirre bergararra. Izan ere, Arrasateko Motorzale Elkar- teak antolatutako proba, Eus- kadiko Txapelketarako balia-

garria zen eta jendeak oso ondo erantzun zuen.

Txapelketa hiru maila- tan jokatu zen. Gaztetan Beñat Aginaga izan zen lehe- na, 125 cm<sup>3</sup>tan Heber Gar- mendia eta 250 cm<sup>3</sup>tan Gor- ka Garate.

## Besaiderekin mendira

Besaide Mendi Elkarateak men- di irteera antolatu du urriko zubirako. Piriniotara joateko irteera antolatu dute lau egu- netarako.

Perdiro mendira joateko- tan dira eta izen ematea aste- lehenean bakarrik izango da. Beraz, badakizue, azkar ibili! Besaideren egoitzara joan zai- tezkete arratsaldeko 19:30etik 20:30era. Kopurua mugatua da, beraz, lehenengo izena ematen duenak joan ahal izan- go du.



# Arrasate-Almenen denboraldi hasiera


2000-2001 denboraldia larunbatean hasiko du Arrasate-Almen eskubaloi taldeak. Eta etxean jokatu du estreinuko partida. Iaz osatu zuen taldea Bernardo Balerdi entrenatzaileak Arrasate eta Almeneko eskubaloi taldeekin. Aurten, beraz, iazko esperientzia dute jokalariek eta dagoeneko elkar ezagutzen dute. Fitxaketa bat ere egin dute eskubaloi taldekoek: Iker Ote-

gi. Bilbotarra da bera eta Eskolan ikasten ari da.

Gauzak horrela, aurten mailaz igotzeko asmoekin ekingo diote denboraldiari. Izan ere, iaz, taldea osatzen nahikoa lan izan zuten seniorrek. Jokalari guztiak berriak ziren eta horrek ez zuen emaitzetan batere lagundu.

Igandean, 12:00etan, jokatu dute Itu-

ripen, Lezoko Allerru taldearen aurka. Denboraldiko lehen neurketa izango da Bernardoren taldearentzat, baina etxean hasteak indarra emango die. Arrasate Eskubaloi taldeko beste bi mailetako taldeek ere asteburu honetan ekingo diote denboraldiari: gazteek Bergaran jokatu dute eta kadeteek igandean, 10:15ean, Aloña Mendiren aurka.



**Eneko Arrieta**  
hegalekoa  
23 urte



**Eneko Garcia**  
hegalekoa  
18 urte



**Mikel Lopez**  
hegalekoa  
19 urte



**Mikel Velasco**  
hegalekoa  
24 urte



**Jonan Eskibel**  
hegalekoa  
19 urte



**Jon Urrutia**  
hegalekoa  
19 urte



**Aritz Gordo**  
erdilaria  
19 urte



**Aitor Garcia**  
hegalekoa  
20 urte




**Gorka Arando**  
hegalekoa  
19 urte



**Nestor Calleja**  
hegalekoa  
19 urte



**Borja Vicente**  
hegalekoa  
19 urte



**Iker Otegi**  
euskarria  
18 urte



**Ruben Espeso**  
euskarria  
19 urte




**Mikel Labaien**  
erdilaria  
19 urte



**Manolo Carrasco**  
euskarria  
24 urte



**Igor Egaña**  
atezaina  
19 urte



**Aitor Txabarri**  
atezaina  
19 urte



**Bernardo Balerdi**  
entrenatzailea  
3. denboraldia



**Manolo Lopez**  
ordezkaria

**Arrasate Almen-  
Allerru igandean,  
12:00etan eta  
Arrasate-Aloña  
Mendi, igandean,  
10:15ean.  
Biak Iturripen.**

Hi ez haiz  
familia honetan  
agertzen



Hi ez haiz  
**arima**  
gabekoa



Hi ez haiz  
inoren  
esklabo



**EZ!!!**

**Haizena Haizelako**

**GAZTETXULO**

*Euskal Herriko gazteen hilabetekaria*

[ **aldizkari gazte bat gazteentzako** ]

Ilrriaren 6an kioskoetan



Harpidetzarako telefonoa  
943 461 883

## Txatxilipurdi, begirale bila

Aisialdi dinamizatzaile izaten ikasi nahi izanez gero, eta umeekin lan egitea gustuko baduzu, zabalik dituzu Txatxilipurdiko ateak, urriaren 18ra arte.

Alde batetik, begirale ikastaroa abiarazi du Txatxilipurdik. 18 urte eta lanerako gogoia izatea dira baldintza bakarrak. Urriaren 28tik maiatzaren 26ra arte, astebururo, heziketa kritiko eta parte hartzailea, aisialdian murgiltzea, animazio teknikak eta haurrekiko harremanak landuko dira ikastaroan. Umeekin urtean zehar egiten diren ekintzetarako trebatuko dira begiraleak. Eta urriaren 18a ere izango da Gabonetako Txikilandiarako begirale izan nahi dutenek izena emateko azken eguna.

## Beste sari bat E. Zabalorentzat

Urretxu eta Zumarragako XII. Pintura Lehiaketan bigarren saria, irabazi du Eluska Zabalok. Sari banaketa bihar izango da, baina Eluskak ez du joa terik izango, Madrilen egongo delako. Urriaren 7tik 15era bitartean, Urretxuko Juan de Lizarazu erakustokian izango dira ikusgai aurkeztu diren lanetariko batzuk.

### MARGOGINTZATIK BIZI

18 urteko margolari arrasatearrak 70 sari inguru ditu dagoeneko; honakoaren aurretik, uztailean beste bat irabazi zuen, Zarautzen. Horrez gain, erakusketak ere egin izan ditu.

Behin baino gehiagotan esan du Eluska Zabalok margogintzatik bizitza gustatuko litzaiokeela, eta ez dihoa bide txarretik, ez.

# Abian daude aurtengo Arrasate Lehiaketak

Abiarazi berri ditu AEDk aurtengo Arrasate Lehiaketak. Hain ospe ona irabazten joan diren literatura, bertsogintza, marrazketa eta hizkuntza lehiaketa hauek XIV. ekitaldia betetzen dute, eta Arrasateko sortzaileen-tzat hitzordu klasiko bihurtu dira.

Urteko sail berberak aurkezten ditu AEDk aurtengoa: ipuina, poesia, komikia, bertso paperak, irri-erreportajea eta euskalki-grabazioa.

Parte hartzailetza bi multzotan banatzen da. 17 urtetik beherakoek, Leintz bailaran bizi, lan egin edo ikasten jardun beharko dute; 17 urtetik gorako multzoan, Debagoiena guztiko lagunek esku hartu ahal izango dute.



Hamalagarren aldiz egingo dira Arrasate Lehiaketak.

### AURKEZPEN MODUA

Idazlanak hiru kopiatan, tarte bikoitzez eta orrialde bakar batetik, makinaz edo ordenadorez idatzita aurkeztu behar dira; euskalki-grabazioen eta irri-erreportajeen kasuan, bi kopia eman beharko dira.

Lan guztiak lelo batekin sinatuko dira. Haiekin batera,

gutunazal itxi bat aurkeztuko da, azalean lelo bera eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta ikastetxea aipatuz. Datorren urteko otsailaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dira helbide honetara: AED Elkarte, XIV. Arrasate Lehiaketak; Pablo Uranga 4, behe; 20.500 Arrasate.

## Jende gutxi Gayarreko finalistak entzutera

Emankizunak gehiago merezi zuen, baina azkenean 160 bat lagun baino ez ziren joan egubakoitzean Amaia antzokia -828 lagunentzako tokia du antzokiak-, Julian Gayarre kantu txapelketako finalisten emanaldiaz gozatzera. Horietatik 40, gonbidapeneekin joan ziren.

Kalitate falta ez zen izango, behintzat, hain sarrera eskasaren zergatia, guztia punta-puntakoa zen-eta.

### GAZTETASUNA ETA ETORKIZUNA

Abeslariak Nafarroan egiten den Julian Gayarre nazioarteko txapelketako onenak ziren, gazteak eta etorkizun handikoak: Carlos Almaguer mexikarra,



Varduhi Khachatryan, 28 urteko armeniarra, izan zen azpitxapelduna.

Caterina Costea errumaniarra, Besik Gabitashvili georgiarra, Varduhi Khachatryan armeniarra eta Hyun-Jae Park korearra.

Pablo Sarasate orkestraren babespean, ahots fin horiek

Rossini, Verdi, Bizet edo Puccini bezalako konposatzaileen ariak eta oberturak jokatu zituzten, aski ezagunak guztiak: *Sevillako bizargina*, *Macbeth*, *Werther* edo *Carmen*en zatiak, besteak beste.

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko bilduma berria ikusgai

eta orain,  
ALFONBRAK

## TELAETXE S.A.

Oihalak etxean neurtu eta  
ipini arteko guztia, gure esku

Elgeta bidea, gasolindegitik 300 metrora • BERGARA • Tel.: 943 76 39 40 / 41  
Astelehenetik larunbatera (10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00)



# ALDIBI AUTOAK, S.A.



## Nissan Primera berria

*Ibilbideaz goza ezazu*



Zigarrola kalea, 1  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 20 02  
Faxa: 943 79 65 65  
e-maila:  
aldibi@nortekar.com



1950-2000

### 50 urte



Araba Etorbidea 5  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Araba etorbidea 20  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Mitarte 3  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Asunción, 1  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

MIKEL ETXAGIBEL (ZINEMALDIKO ZUZENDARIORDEA)

## “Cannes eta Veneziakoarekin parekatu nahi dut Donostiakoa”

Fagorren, ETBn eta Guggenheim Museoan lanean ibilia dugu 47 urteko arrasatear hau. Orain, Donostiako Zinemaldiko zuzendaritza aldatu egin da eta ardura handiko postu batean izango da aurrerantzean Mikel: zuzendariorde lanetan, hain justu.

—Museo baten zuzendaritzatik, zinema jaialdi batera...

—Erronka pertsonal berri bat da. Diego Galanek zuzendari izateari utzi dio eta Mikel Olaziregik hartu du; Mikelek deitu egin zidan bere bigarrena izateko eskatuz, eta baietza eman nion.

—Zein izango da, zehatz-mehatz, zure egitekoa?

—Oro har, antolakuntza lana. Hura guztia antolatzea dagokit: programazioa, filmak, segurtasuna... guztia. Baina, dagoeneko talde handi eta esperientziaduna dago hor, eta euren laguntza ezinbestekoa izango da. Nik neuk ere badut esperientzia zinema kontuetan, eta, horrelako ardura batek errespetua ematen duen arren, badut niregan konfiantza.

—Zein egitasmo duzu Donostiako Zinemaldirako?

—Kutsu internazional handiagoa eman nahi diot. Izan ere, Espainian, zinema jaialdirik garrantzitsuena da Donostiakoa; baina, European, Cannes eta Veneziakoak gainera daude, eta horiekin parekatu nahi dut; hots, eman ahal duen guztia eman dezala Zinemaldiak. Horretarako, atzerriko prentsa gehiago erakarri behar da, batez ere Estatu Batuetakoa. Baina, epe luzerako egitasmo bat da.



—Oso jarduera desberdinak izan dituzu... Aldaketa gustuko duzu?

—Bai. Erronka berriak behar ditut une oro. ETBekin eta Guggenheim museoarekin gauza bera gertatu zait: aurrera eramatea zen gure helburua, eta finkatzea lortu genuenean, hori utzi eta beste xede bati ekiteko ordua dela iruditu zitzaidan. Lan gogorrak izan dira, baina esfortuz, sormenez eta talde lanez aurrera ateratzea lortu dugu.

—Pozik zoaz, beraz, Guggenheim museoan bizitakoarekin.

—Bai, oso garai positiboa izan da. Lehen bi urteetan museoa abiarazi behar genuen, eta lan gogorra izan zen; hurrengo bietan, aldiz, kontsolidatu egin da. Urtero milioi bat bisitaritik gora jasotzen ditu, 140 enpresa laguntzaile ditu eta 12.000 “museoaren lagun” inguru. Europako punta-puntako museoetako bat da.

“Horrelako ardura batek errespetua ematen duen arren, badut niregan konfiantza”

### aste gazte

#### ■ UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSAK

• Ikasturtean zehar unibertsitatera joateko eguneroko joan-etorria egin behar baduzu, hainbat aukera dituzu.

#### ■ DIRU LAGUNTZAK

• 2000-2001 ikasturtean, unibertsitateaz kanpoko ikasketa laguntzetarako deialdia. Epea: urriak 13.

#### ■ LANA

• Bergarako Udalak peoia behar du. Epea: urriak 16.  
• Asteazkenero jasotzen dugu asteburua hainbat egunkaritan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma. Interesik edukiz gero, pasa zaitez bulegotik.

#### ■ IKASTAROAK

• Lan arriskuen prebentziorako ikastaroa Donostian, Gipuzkoako psikologoaren elkartearen eskutik.

• Gorren zeinuen hizkuntza ikasteko ikastaroa, Donostian. Epea: urriak 9.

• Perkusio ikastaroa: Gazteluondo ikastolan, Iñaki Bruñaren eskutik, astelehenetan, 18:00etatik 21:00ak arte.

• Euskal dantza ikastaroa: urriaren 20tik abenduaren 15era. Ostiraletan, 19:00etatik 21:00etara, Lore Gazteak-en lokalean. Matrikula 1.000 pezetan.

• Dantza karibear ikastaroa, hastapen eta sakontze mailak. Astelehen eta asteazkenetan, 19:30etik 21:00etara (hastapen maila) eta 21:00etatik 22:30etara (sakontze maila).


• Hastapen mailako argazkigintza ikastaroa, larunbat goizean 10:30etik 13.30era, ASA Elkartearen eskutik.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

## asteko filma



### Evasión en la Granja

(Chicken Run). Erresuma Batua, 2000. Animaziozkoa. **Zuzendaria:** Peter Lord, Nick Park. **Kalifikazioa:** Guztiontzat

#### HARIA

Oilategi bat da Tweedy senar-emazteen diru iturri nagusia. Kontzentrazio leku bat balitz bezala gobernatzen du Tweedy andre zikoitzak: oiloren batek arrautzarik erruten ez badu, bereak egin du! Baina, oilo otzan guztien artean badago bat, Ginger ilegorri iraultzailea, askatasun ametsekin liluratua dagoena, eta hesi horiek gainditu nahi dituen...

#### KRITIKA

Ikusmin handia zegoen plastilinez egindako film honen estreinaldirako, eta ikustera joan diren gehienak ez dira desliluraturik geratu, zinema lan on bati eskatu dakiokkeen dena -edo ia dena- eskaintzen duelako: barrez lehertzeko egoerak, zentzuzko umorearekin eginak; istorio xamurra, baina ez da sinplekerian edo eskematismo zurrunean erortzen; eta une dramatikoak ere bai.

Ikuslearekin jolasten du filmak, umeentzako film baten itxurapean surrealismotik drama mingotseraino pasatzen den istorioa agertzen baitzaigu. Komeditako estereotipoekin batera -agure erretxin bihotz-samurra, xelebrea, bizkorra...- beldurrezko film onenatariko batean agertzea merezi duten pertsonaje eta egoerak ditugu. Eta, abenturaz abentura, filmeko heroiekin identifikatzen gara, Ginger eta Rocky oilarrarekin.

Bukaeran irribarre bat uzten digu film honek.

## irakurle eta entzule

Iturria: Discopolis eta Hire

### diskoak

#### SAILING TO PHILADELPHIA

Mark Knopfler (Mercury)



Munduko gitarristarik onenatariko bat izateaz gain, abestigile bikaina dugu Mark Knopfler, *Dire Straits* talde mitikoaren

buru eta bihotza. Eta nabarmen geratzen da hori disko honetan. Ipuin bat bezala jarraitzen den diskoa, intentsitate handikoa, abesti eskukada batekin edozeinen istorioa kontatzen duena: galtzaileena, jatorri umiletik mundu osoa konkistatzearekin amets egiten duenarena, gauzak bere garraztasunean ikusi, baina atsekabetzen ez denarena. *Tom Jonesek* eta *Van Morrison*ek ere ipini dute bere harri kokorra disko eder honetan. Abesti guztiak ez dira maila berekoak, baina onak direnak, itzelak dira: ezin aipatu gabe utzi Knopflerren gitarra miragarri horren doinua, "What it is", "Sailing to Philadelphia" edo "Speedway at Nazareth" abestiak.

### liburuak

#### AGUR, EUZKADI

Juan Luis Zabala. (Susa arg.) 159 or., 1.900 pta.



Zenbateraino alda daitezke gauzak leku batean 60 urtetan? Eta leku hori Euskal Herria izanda, eta 60 urte horiek 1937tik gaur egunera izanda, zenbateraino? Eta zer gertatuko litza-teke, horren aparteko testigu Lauaxeta, bapatean berpiztua, izango balitz?

Horiexek dira Juan Luis Zabalak bere laugarren nobela egituratzeko proposatzen dizkigun oinarriak. 1937tik 1997ko edozein egunetaraino salto bortitza eginarazten digu Zabalak, eta Lauaxetaren harri-duraren, susmoen eta topatzen dituen egoera eta pertsonaien eskutik, hainbat konturen inguruko hamaika galdera eta gogoeta suspertzen dizkigu. Fikzio eraikuntza trebe eta erakargarria aurkezten digu idazle honek bere laugarren eleberrian.

## asteburuan zer

### kontzertuak

#### SATANIC SURFERS + ALL SYSTEMS GO! + ABRAXAS

Zapatu honetan, hiru talderen bisita jasoiko du Bergarako Jam aretoak. Plater sendoena Suediatik etorriko zaigu; jakina da punk estiloko talde bikainen sorlekua izan dela Suedia, eta *Satanic Surfers* ez da salbuespena.

Eskola zaharreko hainbat punk talderen ondorengokoa da laukote hau, *Hard-Ons*, *Snfu*, *Misfits*, *Descendents* edo *RKL*, besteak beste. *Hard-Ons* taldeari omenaldia egin nahi izan zioten suediar hauek, eta izenetik hasita egin diote gainera: originaltasun bila zebiltzan, eta "satanic" izutzaile moduan, eta "surfers"

*Hard-Onsen* surf-punk modaren gogoangarri moduan, uztartu zituzten.

#### IBILBIDE MALKARTSUA

1989an sortu zen laukotea eta hainbat gora-beheraren ondoren, musikan euren lekua irekitzea lortu zuten. Hainbat EP kaleratu zituzten, zenbait kideren sartu-irtenak izan ziren, eta 1995ean "Hero of our time" diskoa plazaratu zuten. Hura oso ondo saldu zen, eta ordudunik, etengabe musika produzitzen aritu da *Satanic Surfers*. Iaz, 10. urtemuga ospatzeko, "Songs from the Crypt" eta "Going Nowhere Fast" diskoak kaleratu zituzten.

Doinu hauekin batera, *All Systems Go!* eta *Abraxas* taldeenak ere izango dira entzungai zapatuan, 21:00etan, Jamen.



# Zorionak Maritxuren semeoi



Maritxu Kajoi. Hauxe da jende gehien erakartzen duen Mondragoeko jaia eta herriko jairik dotoreena. Antzinako jantziak eta ez hain antzinakoak gau bakarrean nahastuko dira kalean, zein baino zein dotoreago. Xarma eta distira dira jai honen ikurrak. Hori dena, txikiteroen ama gurtzeko.

Txantxa eta dibertsioa xede moduan hartuta, Maritxuk 24 urte bete ditu dagoeneko eta herritarrek gustura asko hartu dute berean. Azken batean, herritik sortutakoa, herriak egindakoa eta herritar guztiei zuzendutako jaia da gaurkoa.

**Gora Maritxu Kajoi!**



# ETXEAN



# NAHI DITUGU!



JOSEBA GARITAONANDIA



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA




KEPA URRIA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT



PEDRO GURIDI



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE




ENRIKE LETONA



JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



## EUSKAL PRESOAK



## EUSKAL HERRIRA!!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

Irati, Etxerat, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Jaizale, Kimetz

## Maritxu Kajoi: gau bateko xarma



Abuztu bukaeran hasten da jai batzordea Maritxu eguna antolatzen.

Abuztuaren azkenengo astetik hasita, astean behin 23 pertsonako talde bat biltzen da Mondragoen. Helburua: Maritxu Kajoi eguna antolatzea.

Boluntarioki egiten dute lan, eta giro politean; urteen poderioz, gainera, martxa hartuta dute eta gero eta modu sistematikagoan egiten dute lan, profesionalen eran. Hori, noski, gero kalean igartzen da, kanpoko zenbat jende datorren ikustea besterik ez dago!

Antolatzaileen esanetan, baina, jende kopuruak ez du eraginik antolaketa pentsatzeko orduan; adibidez, inoiz ez dute pentsatu jai luza.

“Betiko moduan egiten dugu; noski, pozik hartzen dugu kanpoko jendea etortzea, baina ez dugu horretan pentsatzen. Anekdotak moduan ondo dago, ez besterik. Bestalde, jai luza gero, bere xarma gauduko luke. Arratsaldean hasten den jai luza, gauez luzatzen dena, oso gau luza izaten da... nire ustez, horretxek du xarma”.

Taldean guztiek batera egiten dute lan. Edozein gauza asmatzeko orduan “buruan duguna botatzen da eta guztion artean aukeratzen dugu mirakulua, bertsoak, goitizena... ados ipintzea besterik ez da”.

### Datuak zenbakitan

- Aurrekontua:** 2.000.000 pezeta inguru.  
**Eskapulaixoak:** 5.000, 200 pezetatan bakoitza.  
**Esku orriak:** 3.000, taberna eta dendetan banatzeko.  
**Hormirudiak:** 500, taberna eta dendetan banatzeko.

## IDOIA BEREZIBAR

### Juergistie

Idoia Bereziar “Juergistiek” 34 urte bete ditu gaur. Ezizen polita ezarri diote: “juergistie”, baina ez omen da benetakoa; “zerbait ipini behar zidaten eta horixe jausi da, aguantau egin behar...!”; aspaldiko maritxuzalea da Idoia.

— Noiz eta nola hasi zinen Maritxu Kajoi ospatzen?

— Ez naiz gogoratu ere egiten; orain urte mordoia izan zen.

— Gaur egungo Maritxuak zer iruditzen zaizkizu?

— Ondo daudela uste dut; dena dela, nire gusturako jende larregi dator. Hala ere, ondo ibiltzen naiz.

— Zure ustez zergatik du horrenbesteko arrakasta?

— Akaso arratsalde-gau bakarria delako. Egun gehiago izanez gero, azkenerako aspergarriak izango lirateke.

— Aurten apainduko zara?

— Bai, noski.

— Nola ospatzen duzu eguna?

— Ba egia esan, ez dut beste munduko gauzarik egiten. Kalera irten, edan, eta ondo pasatu. A! eta koadrilarakin afaria.

— Maritxuri mirari bat eskatu behar izanez gero, zer eskatuko zenioke?

— Loterian jokatzeko dut; beraz, zapatuan bertan loteria tokatzea. Edo bestela, egubakoitzean loteria primitiboa.

— Zure urtebetetze eguna izanda, zerbait berezia egingo duzu?

— Egunez, betikoa, lanera joan eta hori guztia; gauez, berriz, lagun batzuekin afaria egingo dugu nire etxean.



**Elizondo**  
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

## Fco. GONZALEZ ELICES

*Eolikazalea*

Francisco Salamankan jaioa da, baina azkenengo 47 urtean Arrasaten bizi izan da. Gaur 54 urte betetzen ditu eta ospatzeko gogo biziz dago.

— Nola ospatzen duzu egun hau ?

— Urtero bazkari eder bat egiten dugu koadrillakoek. Gauean, berriz, emaztearekin irtetzen naiz.

— Maritxutan ohi baino gehiago apaintzen zara?

— Ez, ni normal jantzita ateratzen naiz. Ez dut beste askok bezala gorbatarik janzten. Dena dela, ondo iruditzen zait jendea horrela prestatzea eta gustatzen zait dotoretasun horiek ikustea.

— Azken urteetan ospe handia hartu du jai honek eta jende asko ibiltzen da. Zer iruditzen zaizu hori?


— Oso ondo iruditzen zait; hemendik kanpo Arrasate ezagutzeko beste modu bat da. Dotore jantzi eta ondo pasatzea zen hasierako helburua eta uste dut gaur egun ere hori nahi duela jendeak: dotore jantzi eta primeran pasatzea!

— Maritxuk mirariak egin izan ditu egun honetan; aurten zer eskatuko zenioke zuk?


— Gizarte honetako gatazkak konpon daitezela eskatuko nioke, bakea nahi nuke gure herrian. Behintzat egun honetan bakea izan dadila Arrasateko kaleetan, horixe eskatuko nioke.

— Zure urtebetetze eguna da gaur, nola ospatuko duzu?

— Bihar lan egin behar dut, baina 3:00rak aldera arte parrandan ibiliko naiz nire emazte eta lagunekin. Egundau beti aprobetxatu ohi dugu horretarako eta aurten ere hala izango da. Nahi dudana gauza bakarra da, mundu guztiak ondo-ondo pasatzea.



## Nortasun guztietara egokitzen den hormirudia



Kepa Altube da maritxu eguneko hormairudiaren egilea.

Iaz moduan, aurtengo Maritxu egunerako hormirudia Kepa Altube mondragoetarrrak egin du. Kolore gorria nagusi izanda, "bizitasuna emateko, txokantea izateko", antzinako garaietan inspiratu da Kepa marrazkia egiteko orduan. Kolore gorri horretan murgilduta, herriko makina bat pertsona eta elementu agertzen dira. Hortxe dago, adibidez, herriak estreinatu berri duen autobusa, Mondragoeko parrokoa, eta egileak kontaktu digunez, "herriko preso bat ere badago marrazkien artean ezkutatuta, topatu egin behar!".

Forma biribil bat nagusitzen da hormirudian, mapa mundi bat. "Borobilaren barruan, pertsonak marraztuta, kontinente moduan eta hortxe erdi-erdian, apurtxo bat gehiago markatuta, Euskal

Herriko mapa agertzen da, Maritxu Kajoi non kokatzen den adierazteko". Marrazki horrekin herrialde bakoitzaren nortasuna eta berezitasuna azpimarratu nahi izan du Kepa Altubek. "Orain, globalizazioa gero eta gehiago nagusitzen ari denean, kritika antzeko bat egin nahi izan dut".

### GUZTION GUSTUETARAKO

Hormirudiaren ezaugarri bat da, zutik zein etzanda ipin daitekeela, letrak buelta guztian irakur baitaitezke. "Bakoi-tzak burua apurtu dezala eta nahi duen moduan erabil dezala hormirudia; buelta guztia emanaz gero, lau hormirudi ikus daitezke, bi etzanda eta bi zutik. Horrela, hormirudia ipintzen duenak bere nortasuna ere adierazten du, hormirudia zelan ipintzen duen...".

*"Buelta guztia emanaz gero, lau hormirudi ikus daitezke"*



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •  
Erradapiak • Leihoak • Ateak •  
PVCko leihoak •  
Aluminiozko leihoak •  
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

**GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

# GORKA

ILEAPAINDEGIA

LUZAPENAK

**ORDUTEGIA:**  
Astelehenetan itxita.  
Asteartetik ostiralera:  
09:30 - 20:00  
**Larunbatetan:**  
08:00 - 14:30

**SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

# ARGI ETA GARBI

Etxeko Langilea:  
Defenda itzazu zure Eskubideak!

**ATH-ELE** Etxeko Langileen Elkartea  
Arrasateko Udaleko Emakume Saila

## Legeak agintzen duen gutxieneko soldata

Ordu kopurua (astean)	Gizarte Segurantzaren gabe	Gizarte Segurantzarekin
40	70.680 pta.	67.489 pta.
39	68.913 pta.	65.722 pta.
38	67.146 pta.	63.955 pta.
37	65.379 pta.	62.188 pta.
36	63.612 pta.	60.421 pta.
35	61.845 pta.	58.654 pta.
34	60.078 pta.	56.887 pta.
33	58.311 pta.	55.120 pta.
32	56.544 pta.	53.353 pta.
31	54.777 pta.	51.486 pta.
30	53.010 pta.	49.819 pta.
29	51.243 pta.	48.052 pta.
28	49.476 pta.	46.285 pta.
27	47.709 pta.	44.518 pta.
26	45.942 pta.	42.751 pta.
25	44.175 pta.	40.984 pta.
24	42.408 pta.	39.217 pta.
23	40.641 pta.	37.450 pta.
22	38.874 pta.	35.683 pta.
21	37.107 pta.	33.916 pta.
20	35.340 pta.	32.149 pta.

**URTEKO GUTXIENENKO  
SOLDATA 40 ORDU:** . . . . . 989.520 pta.  
(12 hilabeteko soldata  
eta 2 estra 70.680 pezetakoak)

**GIZARTE SEGURANTZAREN  
KOTIZAZIOA:** . . . . . 18.975 pta.  
• Kontratzailearen kontura. . . . . 15.784 pta.  
• Langilearen kontura . . . . . 3.191 pta.

Kotizaziorako oinarria: . . . . . 86.250 pta.

- Hemen adierazitako soldatak legeak agintzen dituen gutxienekoak dira, kontratatzailearen aldetik hobetu daitezke.
- Eskatu nomina, kontratua exijitu.
- Gizarte Segurantzaren altan ez egon arren, zure eskubideak defenda itzazu.
- Paga estrak 30 egunekoak dira.
- Oporretako hilabetea ordaindua izan beharko da.
- Astean 20 ordu edo gehiago lan eginez gero, Gizarte Segurantzaren alta eman beharra daukate.
- Alarguntza pentsioa jasotzen baduzu ere, Gizarte Segurantzaren kotizatu baduzu zure erretiro pentsioa kobratzeko eskubidea izango duzu.

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sailean: deitu 943 79 09 00 edo eta 943 79 41 39 telefonoetara. Gerturatu Arrasateko Udaletxera, herriko plazara. Helbide elektronikoa: [emakume@arrasate-mondragon.net](mailto:emakume@arrasate-mondragon.net)



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

ATH-ELE

## ANTONIO DEL CAMPO

*Artzaie*

Gizon honek ere urtebetetze eguna du aurtengo Maritxu Kajoi eguna. Antonio bilbotarra da, baina urte asko daramatza Arrasaten eta ondo gogoratzen du noiz eta nola sortu zen jai hau.

— **Noiz eta nola hasi zinen Maritxu Kajoi ospatzen?**

— Duela 30 bat urte, parrokia inguruko kaleetan poteoa egiten genuen. Garai hartan urriaren 1ean Errosario Ama Birjinaren Eguna ospatzen zen. Norbaitek Maritxu deitzen zion Ama Birjinari eta kutxa batean dagoenez, hortik dator kio izena. Batzuk dotore jantzen hasi ziren txikiteora joateko, baina hasieran gorbata janztea nahikoa zen.

Pixkanaka jendea gero eta apainduago irteten hasi zen eta gorbataz gain trajea ere jantzen zuten batzuek.

Automobil zahar bat apaindu eta bazkaltzera Bergarako Lasa jatetxera joaten zirenak ere baziren.

— **Oraingo Maritxuak nola ikusten dituzu?**

— Gazteak sartu dira eta jaia lehertu egin da.

Asko aldatu da urte hauetan. Gazte asko afaldu eta gero irteten da kalera eta ez dute egiten afaldu aurreko txikiteorik. Orain jaia gaez izaten da... eguna egin arte.

— **Eta zuk nola ospatzen duzu egun hau?**

— Ohiturari eutsi nahi diogu eta 19:00etan elkartzen gara koadrillakoak poteoa egiteko; dena dela, batzuek bakarrik jantzen dugu gorbata.

— **Zergatik du hainbesteko arrakasta egun honek?**

— Niri bereziki asko gustatzen zait; denoi gustatzen zaigu noizbaiten aktoreen edo famatuen modura dotore-dotore irtetea kalera, eta horretarako aukera ezin hobea da hau.

— **Lantokian ospatzen duzue?**


— Batzuek goizean jantzen dute gorbata lanera joateko, baina gogoratzen dut aspaldiko kontu bat... Hamabost bat urte pasatu dira ordutik... Portaloiko Aurrezki Kutxako langileak oso modu bitxian jantzi ziren. Garai bateko mangitoak jantzi zituzten, mahukak tintaz ez zikintzekoak, alegia, eta ilea ere dotore ipini zuten: marra erdian eta gominaz orraztuta.

— **Apainduko zara?**

— Bai noski, aurtengainera nire urtebetetzea izanik, zerbait berezia egin nahiko nuke. Agian pajarita jantzita joango naiz nire lantokira...



## Maritxu Kajoiri buruzko beste ikuspuntu bat



JM Astigarraga parrokoak Maritxu jaiari buruzko ikuspuntua adierazi digu.

“Hasteko, Maritxu Kajoiren benetako historia esplikatzen beharra dagoela uste dut. Sortu zen garaian ezker abertzaleak eta beste alderdi ezkeriak batzuek (ideologia marxistaren ingurukoak) Elizaren kontrako ahalegin berezia egin zuten. Elizak bere baitan batzen zituen gazte eta elkarte guztiak bereganatu nahi zituen eta horretarako saiakera bereziak egin zituen. Nik uste dut hortxe dagoela jaiaren jatorria eta istiluaren hasiera; maila batean, Elizak zuen arrakastaren aurkako jaia izan zen.

Beste alde batetik, hasieran, bereziki, mingarria izan zen. Mingarria zen Ama Birjinari egiten zioten isekak ikustea, toreatzailez jantzi-ta...

Ni hona (Arrasatera) etorri nintzenez, egoera konpontzeko borondaterik ez zegoela ikusi nuen. Urterotertero izan ditut harremanak batzorde antolatzailearekin.

Ni ez naiz inoiz jaiaren kontra egon, ez baina inor herrian zer ospatu behar den erabakitzeke. Baina, urtero-urtero eskatu izan diot batzordeari erlijioarekiko errespetua gordetzea; ez manipulaztea eta iruzurrik ez egitea. Eta uste dut hasieratik hona asko baretu direla hasierako asmo txarrak eta azkenean lortu genuen hitzarmen bat eta orain Ama Birjinaren irudia errespetatzen da.

### EDANA BULTZATZEKO

Horrez gain, nik neuk ez dut gustuko jai hori, edana bultzatzen duelako. Ezin dut ulertu gure gazteriaren izenean edateko eta parrandarako festa bat antolatzea. Pertsona moduan ez ditut onartzen ez festa horren helburua ezta bere edukia ere; gure gazteriarendako galbidea besterik ez dela uste dut. 13-14 urteko gazteek beren lehenengo mozkorra harrapatzen dute Maritxutan”.

“Hasieratik hona asko baretu dira hasierako asmo txarrak”



**OMU**  
ZERAMIKAK



**Zeramika  
Arte  
unibertsala**

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

**Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan**

## MAITE ANSUATEGI

*Irriño*

Donostian bizi da neskatila irribarretsu hau, baina mondragoetarra da jaiotzez eta mondragoetar on moduan, ezagutzen du, bai, Maritxu Kajoi. Maitek ez du ezizenik Donostian bizi delako, baina bere irribarrea ikusita, guk geuk ipiniko diogu bat: "irriño".

— Ospatu duzu sekula Maritxu?

— Ez, aurten izango da lehenengo aldia, ikusi ere ez dut egin Maritxu Kajoi! Aurten ezagutuko dut.

— Beraz, aurten bazatoz?

— Bai, amatxo eta aitaxorekin joango naiz.

— Eta jantziko zara?

— Oraindik ez dakit, amatxok esango dit; gustatuko litzaidake, bai. Beraiek jantziko dira.

— Hemen oso ezaguna da Maritxu, baina Donostian zure lagunek ezagutzen dute?

— Ez, oraindik ez.

— Maritxuri mirariren bat eskatu ahal izango bazenio, zer eskatuko zenuke?

— Jostailuak ekartzea.

— Zure eguna da ostiralean, nola ospatuko duzu?

— Angiozarko Taberna Zaharrera goaz afaltzera.



## Nobenaixua

Batzuk ixil-ixilik hartu eta jan egiten dute!

...beste batzuk bere aitaren txikitoa zaintzen gelditzen dira.



gaztetxo zein nagusiagoek, guztiek ematen dioten ongi etorria Maritxuri nobenaixuan!



# egizabal

## Oinetakoak eta poltsak

Ondo pasa  
jaietan!!

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01  
Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28



30 urte bezeroaren esanetara

1970 **30** 2000  
*Urteurrena  
Aniversario*



**ZELAIRA**  
OÑATI

## *Etxeko Altzariak*



... *ALTZARI* KLASIKOAK, MODERNOAK ETA ERRUSTIKOAK.

... *EGONGELAK*, LOGELAK, SARRERAK.

... *ARGIKUNTZA*:  
MAHAIGAINENKO LANPARAK,  
ZUTIKAKOAK, SABAIKOAK ...

... *ALFONBRAK*.

... *KOADROAK*, ISPILUAK.


... *DEKORAZIOAKO GAUZAK* ETA OSAGARRIAK.

— *NORBERARI EGOKITUTAKO DEKORAZIO-PROIEKTUAK* . —

**ERAKUSKETA**

Ayda de Euskadi, 3 - Telefonoa: 943 78 36 99 - OÑATI





- Garageko atek
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko agente tresnak eta hauen mota guztietako kopiak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17  
110 Postakutxa • ARRASATE

**JUBAR**<sup>®</sup>  
ATEAK, S.L.



Zehaztutako ibilbidetik ateratzen da

**MECA**



**RX4**

## EGITARAUA

**Goixeko 8etan:** itxafleruek egune giroketan hasteko.

**Goixeko 8:30etan:** Parrokixan mezie hildako txikiteruen omenez; jende ugari fan ezkerro aprobetxaukou Lizarra Garazi, Udalbiltza eta holakuek berpiztia eskatzeko.

**Atsaldeko 15:00etan:**

umientzako eta ez hain umientzako kale animaziñue AUSKALO taldiaz.

**18:30etan:** Txillida famatue etorriko da parrokuai estatu bat eitzeko neurixak hartzera. Adii! Laguntzailliek bieko die eta!

**19:00etan:** erraldoi eta kilixek Mondraueko kalietan Arrasateko gaiteruen laguntzaz.

**19:30etan:** giruekin jarraitetako Maritxun txarangiek,

Txumairen zuzendaritza-peien irtengo dau.

**20:30etan:** urte osoko parrandak eskertu eta gaberako zorte ona eskatzeko herriko kuadrilek Maritxui eindako lore sorten eskaintza.

**21:00etatik goixeko**

**9:00etara:** Uarkape pilotalekuan umezaintza herrikoia zabalduko da umiek daukien gurasuek jaixa ondo pasau deixien. Oharrak: koltxonetak bertan egongo diez baina pañalak eta pijamak norberak eruen; dohain izengo da; apuntetako 943 79 71 99 telefonora deittu.

**12:00etan:** Herriko Plazan berbenie Izotz taldiaz.

**Goizaldeko 6:00etan:** Seberon kontzertu mundiala!! *Barrikada, Siniestro Total* eta *Derribos Sukia*. ■



### ESKAPULAIXOAN

Zure heriotza sentitu dugu "persona ona" esanaz, gure barruan zaude Rufino "2 caballos" ta sotanaz!

Maritxutako berezia:

**Alazne Ostolaza**  
**Ubane Madera**

## PAUL GALLACCHER

*Eskoziarra*

Paul Gallaccher eskoziarra da, baina ezagutzen du Maritxu Kajoi. 1987. urtean ezagutu zuen; astebeterako etorri zen Euskal Herrira eta Maritxuk pare-parean harpatu zuen. Ez zuen jantzirik aurkitu eta ezin izan zen dotore irten. Aurten hartuko du bai haren ordaina, 36. urtebetetzearekin batera.

— Nola gogoratzen duzu zure lehenengo Maritxu Kajoi?

— Ondo ibili nintzen, hori badut gogoan; bestela, egia esan, ez dut oroitzapen berezirik... orduan ez zen ibiltzen gaur egun ibiltzen den adina jende.

— Aurten bigarrena, jantziko al zara?

— Bai, aurten bai.

— Bereziki prestatu duzu zure janzkera?

— Lehendik erositako jantzi bat erabiliko dut, ezkontzetara eta ehorzketetara eramaten dudan jantzia... je je je...

— Mirari bat...

— Aramaio erreka garbitzea.

— Urtebetetzea nola ospatuko duzu?

— Zumelagara goaz afaltzera koadrillakoak. Ondoren, gu, behintzat, etxera joango gara seguraski; akaso gure semeak segituko du jaia...



### Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57

### Esperientziadun JOSTUNA behar da

Iarruzko konponketak egiteko

943 79 10 43  
626 28 22 21

## Hezkidetzeta ikastaro teoriko praktikoa

AUKERA BERDINTASUNERA BIDEAN...



**Helburuak:** Hezkidetzan, oinarriko prestakuntza jasotzea. Eskola esparruko familiei zuzendutako proiektuan praktikaldia egitea.

**Norentzat:** Hezitzaile moduan lanean ari den edo prestakuntza duen pertsona interesatuentzat (irakasletza, gizarte lana, soziologia, psikologia ikasketak burututa edo karrerako azken urteetan).

**Emailea:** Urtxintza astialdiko eskola.  
**Noiz:** 2000-2001 ikasturtean, urritik ekainera.


Urritik abendura prestakuntza teorikoa (24 ordu) eta urtarrilatik ekainera praktikaldia (36 ordu).

Informazioa eta izen ematea Arrasateko Udaleko Emakume edo Hezkuntza Sailean **urriaren 18ra arte** 943 79 09 00 edo 943 79 41 39 telefonoetan.



ARRASATEKO UDALA Emakume Saila ■  
Hezkuntza Saila ■

# lazkoa iruditan...




**laz dotore,  
aurten dotoreago.**



Laster...



...harrituko zaitu.



**MUGARRI**

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 54 • [jefeventas@mugarri.es](mailto:jefeventas@mugarri.es)



# Goitb

Goiena Telebista

## ASTELEHENA, 9

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
 13:55 **Astebete.**  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
 21:30 **Goienasport**  
 Gorka Etxabek bailarako kirol emaitzen berri emango digu.  
 22:00 **Gatza eta Berakatza.**  
 22:15 **Maritxu Kajoi 2000 programa berezia.**  
 Eva eta David Romero anai arrebeak aurkeztuko digute Maritxutako saio berezia.



Eva eta David Romero.

## ASTEAZKENA, 11

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
 13:55 **Maritxu Kajoi 2000 programa berezia.**  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
 21:30 **Alkatearekin berbetan.**  
 Iñaki Nafarrate, Aramaio-ko alkatea, elkarrizketatuko dute bi kazetarik, tartean Rosa Mondragon, Aramaioko GOITBko berri emailea.



Iñaki Nafarrate.

22:15 **Gatza eta Berakatza.**

## ASTEARTEA, 10

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
 13:55 **Goienasport** (errepika).  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
 21:30 **Maritxu Kajoi 2000 programa berezia.**  
 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

## Gatza eta Berakatza



Aste honetan ere zapore goxoak dastatzeko aukera izango dugu. Oraingoan, ordea, Begoña Aldaberen eskutik. Bera Arrasateko Gesalibar auzoan dagoen Txirrita jate-txeko sukaldaria da. On egin deizuela!

### Datorren astean

#### NOIZ

Astelehena 9  
 Asteartea 10  
 Asteazkena 11

#### PLATERA

Piperrak bakailaoz beteak.  
 Bakailaoa kokotxekin.  
 Bakailaoa tomatetan.

## LARUNBATA, 14

- 13:30 **Gatza eta Berakatza, Maritxu Kajoi 2000, Alkatearekin berbetan** (errepika).

## IGANDEA, 15

- 13:30 **Gatza eta Berakatza, Maritxu Kajoi 2000, Alkatearekin berbetan** (errepika).

### Etxebizitzak salgai Antzuolan

90m<sup>2</sup> erabilgarriak

**20.000.000 PTA**

Lehen mailako materialekin egina. Leku ezin hobea.  
 Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**  
 Tel.: 943 73 05 25



### ALDAPE

Taberna

Espezialitatea: menua-karta

Iturriotz, 41  
 Tel.: 943 79 70 41  
 ARRASATE




# Kirol saioa abiatu da

**Goienasport** astelehena, 21:30

Joan den astelehenean abiatu zen denboraldi berriko lehen Goienasport saioa. Eta hainbat berrikuntza ekarri, gainera.

Lehena eta nabarmenena, aurkezlea. Gorka Etxabe kazetari atxabaltarrak aurkezten du saioa. Itxaro Zubillagaren lekukoa hartu du saioaren gidaritzan. Ez da lehen aldia Gorkak lan egiten duela kirol saio batean. Sasoi batean Mondrasporten hartu zuen parte, Arrasate Telebistan. Haren arrastoa galdua zenutenok jakin ezazue Gorkak bi urte igaro dituela Euskal Telebistan lanean, Arabako albistegietan. Orain GOITBko albiste zerbitzuetan dihardu buru-belarri. Berak aurkeztuko ditu, gainera, Berriak albistegietako kirol tartekak.

Edukiari dagokionez ere, aldaketak izango ditu saio berriztuak. Saioaren lehen erdia futbolari eskainiko zaio. Aloña Mendi, Bergara, Mondra eta UDAREN jarraipen hurbi- la egingo da: partidak, elkarrizketak, halakori edo halakori egindako jarraipena, irudi bitxiak... futbola, majo jorratuta. Lan horretarako Gorka Etxabek hainbat laguntzaile izango ditu: Aretxabaletan eta Arrasaten Iraia Aginagalde kazetari ikaslea. Bergaran Edu Mendibil Berrigara astekariko zuzendaria eta Oñatin Iñigo Arregi, Kontzejupetik hilaletkariko zuzendaria. Denen artean Goiena Telebistako kirol erredakzioa



osatzen dute.

Saioaren bigarren erdian, ostera, denetik izango da. Kirol erreportaje bat, kamera subjektiboa, gutxiago ikusten diren kirolen jarraipena, kirolari profesionalak, klubak edo aspaldiko kirolarien gaineko bideoak...

Debagoieneko kirola, ikuspegi askotatik begiraturatuta. Horixe izango da Goienasport. Astelehenero, ordu erdiz.

## ASTELEHENETIK OSTIRALERA

- 09:00 Egunon Arrasate.
- 09:30 Prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, oharrak, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

### ASTELEHENEAN

21:00 Draxtor eta In Session.

### ASTEARTEAN

20:00 Hi bizi hadi.  
21:00 Jakidiplost.

### ASTEAZKENEAN

21:00 KK2A.

### OSTEGUNEAN

20:00 Ostegun-Ero.

### OSTIRALEAN

20:00 Planing Prest.  
21:00 Kale Doinuak.

### LARUNBATEAN

10:00 Bihurrikerietan.  
11:00 Musika klasikoa.  
12:00 Bi zoro eta zu.

**LOS VAQUEROS**

Zerkaosteta, 3 • 943 79 98 48  
Zerkaosteta, 5 • 943 79 97 55

**Maritxuak  
primeran pasetako!!**

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Sierra Morenan (Jaen) 240 m<sup>2</sup>-ko etxea salgai, 15.000 m<sup>2</sup>-ko lur sailarekin. Putzua, garajea eta igerilekua dauka. Arrantzarako eta ehizarako inguru aproposan kokatua. Prezio oso interesgarria. Tel.: 606 69 32 87. Antonia.

- Erdialdean pisu berria alokagai: 3 gela, egongela, 2 komun, sukaldea eta trastelekua. Tel.: 656 78 69 49.

- Etxea salgai makatzenen. 70m<sup>2</sup>. Tel.: 943 79 77 03..

- Arronizen (Nafarroa) pisua salgai. Lizarratik 15 km.ra. Berria, 90 m<sup>2</sup> eta 40m<sup>2</sup>ko etxabea. Prezio ona. Tel.: 94 143 10 19.

- Pisua salgai Aretxabaletan. 90 m<sup>2</sup>, sukaldea, egongela, hiru logela, trastelekua, bainugela eta sotoa. Tel.: 659 45 05 79.

- Pisua salgai Begoñan. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, terraza handia, berogailua. Tel.: 646 30 53 49 / 636 79 47 61.

### 3. Errentan emateko

- Komuna duen logela bat alokagai Oñatin, sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 943 78 28 62.

- Pisua alokagai kale aldean. Tel.: 943 79 90 41.

- Pisua alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 32 73 / 656 75 83 59.

- Etxebizitza alokagai San Andresen. Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 41 10 (Josefina).

- Gela bat alokagai daukat. Tel.: 943 79 87 59.

- 4 ikaslerentzat etxebizitza alokagai unibertsitatetik gertu. Tel.: 669 83 94 68.

### 4. Errentan hartzeko

- Etxebizitza bat behar dut Aretxabaleta eta Eskoriatza artean. Konpartitua. Tel.: 686 95 56 97.

- Aretxabaleta edo Eskoriatza pisu bila nabil. Besteekin banatzeko. Tel.: 686 95 56 97.

- Ikasle bat Arrasaten pisu bila. Tel.: 948 46 73 66 eta 945 46 71 24.

- Pisua behar dugu Aramaio, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan.

### ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

### GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

### LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

### LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

### IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

### MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

### DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

### HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

Tel.: 629 92 48 82.

### 5. Etxeak osatzeko

- Logela bat hartuko nuke etxea osatzeko. tel.: 94 444 53 13.

- Neskak behar dira Aretxabaleta-ko etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 79 78 35 edo 627 64 27 13.

- Lagun bat bilatzen nabil etxebizitza bat betetzeko. Tel.: 943 77 13 20.

- Neska bat behar dugu Sarrikan pisua osatzeko. Tel.: 943 79 48 53 edo 696 86 40 48.

- Neska batek gela bat alokatu nahi du. Tel.: 94 440 58 78 edo 696 88 26 65.

- Neska bat behar da Donostian, Amaran, ikasleen pisu bat osatzeko. Tel.: 943 47 32 67.

- Lagun bat behar dut Arrasaten pisua osatzeko. Tel.: 943 77 13 20 (gauzez).

- Pertsona bat behar da etxebizitza konpartitzeko San Juan auzoan, prezioa da. 21.700 + gastuak. Tel.: 943 79 23 96.

### GARAJEAK

### 7. Saldu

- Txindoki dorrean garajea salgai, goiko solairuan. Tel.: 943 79 24 10.

### 9. Errentan emateko

- Garajea alokagai Uarkapen. Tel.: 943 79 84 35. Goizez edo gauzez deitu.

- Arimazubi plazan garaje itxia saltzen dut. Tel.: 943 79 18 13.

- Erdialdean garaje itxia alokatzen dut. Tel.: 943 79 01 84.

### LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

- Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian. 60m<sup>2</sup> eta 22m<sup>2</sup>ko patioa. Tel.: 606 76 50 22.

### 14. Errentan emateko

- Bi gela alokagai irakaskuntza edo bulego lanetarako. Tel.: 943 79 18 70.

- Bi lokal alokagai Aretxabaleta-ko Errekabarren kalean. 34m<sup>2</sup> eta 36m<sup>2</sup> takoak. Tel.: 943 79 20 48 / 943 77 14 11.

- Lokal bat alokagai Anboto kalean, 75 m<sup>2</sup>, ur eta argiarekin. Tel.: 943 79 98 07. Gauzez.

### LANA

### 17. Eskaintza

- Esperientziadun emakumea, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 68 77. 12:30etik aurrera.

- Neska prest umeak zaindu edo denda batean lan egiteko. Tel.: 943 79 69 66. Ainhoa.

- Emakumea prest orduka lan egiteko. Tel.: 626 626 167.

- Neska prest arratsaldez umeak zaintzeko edo orduka lan egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

- Emakumea prest umeak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak eta garbiketarako egiteko. Tel.: 653 72 30 21.

- Taberna batean lan egingo nuke, Arrasate edo inguruan; esperientziaduna. Tel.: 657 70 49 99 edo 657 70 50 00.

- Neska prest umeak zaintzeko arratsaldez. Tel.: 943 79 20 55.

### 18. Eskaerak

- Zerbitzari bat behar da Gatzaga Gainen. Tel.: 943 71 55 22. Mari Karmen.

- Ile apaintzaile bat behar da. Tel.: 943 79 49 72.

- Taberna baterako zerbitzaria behar da. Tel.: 943 77 17 97 edo 943 79 38 93.

- Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 91 64. 10:00-13:00, 17:00-20:00.

- Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 93 89. 20:00 etatik aurrera.

- Komertzialak behar dira Arrasate ingururako. Tel.: 943 21 42 28. 9:00-13:00.

- Zerbitzariak behar dira. Tel.: 945 44 50 86.

- Taberna baterako sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.



• 18 eta 35 urte bitarteko jendea behar da hipermerkatuetan produktuak kokatzeko. Interesatuok curriculuma bidali ondoko helbidea: Marketing aplicado, Avenida Madrid 121, 3C, 50.010 Zaragoza. Tel.: 976 34 63 61.

• Tabernan lan egiteko neska bat behar da. Tel.: 943 79 74 09.

• Neska bat behar da sukaldarako eta beste bat barrarako. Tel.: 943 79 00 34.

• Esperientziadun ile apaintzaile profesionala behar da. Ikaslerik ez. Tel.: 943 77 13 03 (21:00etatik aurrera).

• Arrasateko arrandegi batean emakume euskalduna behar da goizez lan egiteko. Gida baimena beharrezkoa da. Tel.: 94 682 03 73 edo 943 71 48 61.

• Tabernan sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Emakume bat behar da 5 orduz etxeagarbitzeko. Tel.: 653 71 79 00, gaez deitu.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Matematikako eskolak ematen ditut UBira arte. Tel.: 943 79 39 23. 18:00etatik aurrera.

• Ingelesko eskolak ematen ditut. Talde mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Profesionalak prest laguntza eskolak emateko. Tel.: 649 22 51 07.

• Eskola partikularrak ematen dira talde murriztuetan: idazketa-irakur-

keta, euskara errefortzua eta etxerako lanetan laguntza. LH 1.-6. maila bitartean. Tel.: 619 35 48 44.

• Eskola partikularrak emango nituzke, 1. hezkuntzan edo DBHko lehenengo mailan. Tel.: 943 79 97 87. 21:00etatik aurrera.

### 21. Eskaerak

• Alemana irakasteko pertsona behar da (irakasle bat behar da). Tel.: 943 79 38 16. Idoia.

• Batxilergoko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako eskolak emateko irakaslea behar da. Tel.: 943 79 28 79. Deitu 19:00etatik 21:00etara. Mertxe.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Kawasaki Volcan 800 motorra salgai. 900.000 pta. Tel.: 943 77 08 69.

• Ford Orion SS - W autoa salgai. Egoera onean. 125.000 pta. Tel.: 943 79 78 98.

• Ford Courier Combi furgoneta salgai. 1.800 Diesela. Egoera ona. Tel.: 943 71 46 79 eta 630 60 90 53.

• Ford Fiesta bat salgai. SS - Z.Oso egoera onean, garajejan gordetako. Tel.: 943 79 58 29.

• Opel Corsa autoa salgai. SS - BB, 15.000 km. berri-berria. Tel.: 943 79 27 30.

• Opel Kadett 1.4 autoa salgai. SS - AL. Tel.: 667 08 84 84 (lker).

• Volkswagen Polo diesela 1,9 SS-

AX salgai. Tel.: 609 54 16 13.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Etxeko altzariak salgai. Berriak dira. Oso merke. Tel.: 943 79 38 16. Idoia

• Bosch markako arropa lehortzaile salgai. Oso gutxi erabilia. Prezio erdira. Tel.: 943 79 25 15.

• Husky txakur kumea salgai. Tel.: 627 41 77 59.

• Cocker eta Boxer txakur kumeak salgai. Pedigridunak. Tel.: 696 05 73 46.

• Teklatua salgai, Yamaha ESR-68 modelokoa. Tel.: 943 79 27 65.

• Akordeoia salgai. Tel.: 630 24 52 14.

• Akordeoia salgai, 72 baxukoa, gorri kolorekoa. Blessing markakoa. Tel.: 943 79 36 73.

• "Vaporeto" italiarra salgai, plan-txa eta guzti. Oso egoera onean. Tel.: 943 79 36 73.

• 4 llanta salgai, neumatikoekin batera. Golf 2, 5 palos. Neurriak: 185, 60, R14. Tel.: 646 76 76 52. Xabier.

• 5 gurpil saltzen dira aluminiozko llantekin, Opel Corsa edo Opel Kadettentzat. 20.000 pta. Tel.: 943 79 93 19.

### 29. Eman

• Hil eta erdiko txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 676 37 96 36.

### 31. Galdu

• Angora arrazako katu bat galdu zen hilak 7an, ostegunean, Arrasaten. Marroi-zuri kolorekoa eta nahiko handia. Tifus izena dauka. Tel.: 943 79 36 82.

• Frantseseko liburua galdu dut: "Le Nouveau Sans Frontieres Perfectionnement" izenburuduna. Tel.: 943 79 69 68 (Izakun).

• Irailaren 20an, eguaztena, Erguingo Udalpe plazako eskaileteretan betaurrekoak galdu nituen. Brico markakoak, berdeak. Tel.: 943 77 01 42.

### 31. Galdu

• Ehiza txakur beltza agertu da. Tel.: 943 79 52 80.

## HARREMANAK

### 36. Harremanak

• Arrasaten bizi naiz eta ingelesez (amerikeraz) ondo dakidan mutila naiz. Frantsesez ondo dakien neska baten bila nabil bere ingelesa eta nire frantsesa hobetzeko. Deitu 619 072 900 telefonora.

### 37. Bestelakoak

• Familia bat behar da, datorren ikasturtean ikasle bat bere etxean hartzeko. Tel.: 943 83 37 45. Josu.

• Berreskuratu zure osasuna energia erabiliz. Gaixotasun mota guztiak, norberarentzako tratamenduekin. Deitu inolako konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 445 74.

*Lore*

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50


## S. CARRASCAL S.L.

### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

### Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82



**aitor**  
ile apaintzailea

gizonezkoen  
ile apaindegia

Otalora lizentziatua, 14  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 01 39  
617 28 02 83



**Zabalduta berria!** • Txoko taberna ondoan



**K**ontzeziñoko mojetatik mon-dragoetar asko pasatu izan dira eskola itxi zen arte. 7 urte arte egiten zuten Kontzeziñon, handik Biterira joaten ziren eta ondoren Kalistrotetara, hamar urterekin.

1960-61 urte inguruan ateratakoa da argazki hau. Udaleko ordezkariek opariak emate-

ra joan ziren.

Aurretik hasiko gara izenak ematen, ezkerretik hasita: Itziar Azkoaga, Aintzane Azkarate eta Maite Garmendia. Bigarren ilaran, Mila Larrauri eta Otilia Gonzalez daude; izkinan, berri, Maite Azkoaga dago. Hirugarren ilarako lehenengoa, burua justu-justu ikusten zaiona, Isabel Bastida da (bitxikeria moduan esan behar da Jaime

Mayor Orejaren emaztea dela); bere ondokoa Maite Borque da eta hurrengoa Loli Azkoaga. Loliren ondoan irribarretsu dagoen neskatila Amaia Aranburu da.

Laugarren ilarara salto egingenez, ezker-ezkerreko neskatila Izaskun Aranburu da, haren ondokoa M<sup>a</sup> Jesus Garmendia eta Begoña Zeziaga da hurrengoa; kopeta-ileduna, berri,

M<sup>a</sup> Eugenia Gonzalez da eta ondokoa Hirune Iribecampus.

Mutikotxoaren artean, berri, ezkerrekoak Tricio abizena du, ondorengoa Roman Kortabarria da, Pepelu Heriz dator gero eta azkena Marcelino (Matxun) Amozarrain da.

-----  
*Argazkia eta berriemailea:  
Maite Garmendia.*

# GANBARA



- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)
- Altzari zaharrak



Arte ederretako  
materialean  
%25-30eko  
deskontua

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37



Hilabete honetan  
eguzkitarako

betaurrekoetan

%30eko deskontua

Erdiko Kale, 22 • Tel.: 943 79 71 68  
Hiper Eroski • Tel.: 943 79 78 26  
**ARRASATE**

Andra Mari, 8 • Tel.: 94 620 29 86  
Grupo San Ignacio • Tel.: 94 681 84 92  
**DURANGO**



**INSTITUTO  
OPTICO**

# Garai berrietan ere...

Txukuntasuna



Argitasuna



Erosotasuna



Osotasuna



Lasaitasuna



hemen aurkituko duzu